




Jaincouren. Manamen
duac dira No. 49 et 50

Marianne Hirany 136
acusatzenit ut bisico becatual



N-237352

ZRY.
3400

GIRISTINO LEGEA

LABURZKI



BAIONAN

LASSERRE BATHAN IMPRIMATUA

—
1892

Alfonso...

Imprimi potest.

Baionæ, die 19^a Septembris 1892.

DIHARCE, *vic. gen.*

ESCUALDUN MAITEAC,

Zertaco agerrarazten dut liburu berri hau?

— Agian zembait arimeri on eginen diotelacoan.

Jadanic, duela hiru urthe, argitan eman nuen Erlisionearen *ichtorioa* laburzki; hemen laburzki ezarri ditut Erlisionearen *iracaspnac*, beharrenac berderen. Iracaspn, ondicotz, ez aski ezagutuac! Eta bizkitartean, bide bat ezagutzen ez balinbada, hari nola jarraik!

Halaber, Erlisionearen iracaspnac ez balinbadire ezagutzen, nola heien araber bizi ditake!

— Badakit liburu huntan direnac, bertze batzuetan ere causi ditazkela; *bainan ez huntan bezala erranac*. Bada, maiz, gauza bat hobeki sartzen zaicu

buruan eta bihotzean, bi ahotaric, bi gisetarat entzuten dugunean. Horra zergatic iduritu zaitan lan hau ez nuela alferretan eginen; zembait arima bederen argituco zituela, eta Jaincoaren gehiago maitatzen eta hobeki zerbitzatzeko lagunduco.

Oha beraz, nere liburua, oha Escualduneri garbiki erraitera, zer sinhetsi eta zer egin behar duten zerurat heltzeco.

Eta Jainco onac benedica detzala hire erranac.

L. DIHARASSARRY,

Orzaizeco erretora.

Aita Agustin Bastidaco Beditanoen abadeac, Catichima hunen egileari egorri izan diozcan laudoriosco hits onac.

JAUN ERROTOR ETA ADISKIDE MAITEA,

Huna beraz non ematen daucuzun, oino ere es-cualduneri, liburu berri eta on bat.

Yadanic eman dauzkigutzunac hainitz onac ziren, oraico hunec ez diote bada izanen lehenagocoei zorric.

Iduri du, zembait azken urthe hautan, yaun aphez zembeiten artean, gutiescua saindu bat eman dela norc eginen eta emanen darotzkigun libururic hoberenac, escuararic garbienean.

Ez dacogu guri erratea zein diren hoberenac eta ederrenac; guziac, baxhotcha bere gisan eta bere heinian, onac eta ederrac baitire.

Bainan orai arteco liburuez dena dela, orai agertzen duzun catichima edo giristino lege hau izanen da hein bat ona arimen argitzeco eta iracaspem zuzenac eta segura: emateco.

Ez dut uste badugun catichimaric escuara garbiagoz eginic, ez eta ere gauzac errechkiago aditzeco gisan erranez.

Escuara garbia ez diren hitz guziac ahalaz bazterrerat utzi ditutzu, ezin bertzezo bakhar batzu hartuz. Gauzac gogoan hartzeo maiz errechago bihurtu ditutzu; galdea eta ihardestea hitz berez emanaz, halaco gisaz non, ascotan, aski baita bai eta ez, galdeari ihardestearen emaiteco.

Gogoz nekez gauzac ikhasten dituztenec ere zure catichima errechki. edo bederen errechkiago ikhasico dute.

Bertze alde dembora bakhotchac, mende bakhotchac baditu bere behar bereziac, eta gure demborac ez ttikiagoac.

Gure mendean eta oraico egunetan baitezpada yakin behar diren gauza eta egia batzu hainitz laburzki eta funtski chehatu eta argitu ditutzu.

Ochala catichima ttiki hau, jainco lege hau giristinoen escu-liburua egiten balitz! maiz irakurtua balitz! Ochala liburu ttiki hau ez balitz, bertze zembait bezala alhase mail batean edo armario zokho batean utzia! armiarmoz estalia.

Giristinoec gogoz behar lukete ikhasi espagnol escualdunec beren catichima ttikia eta ederra dakiten bezala.

Zure catichima, jaun erretora, aski laburra da, arras adi errecha, eta bizkitarteon aski hedatua egia yakin beharreenen gainean. Zembat giristino

ez da causitzen bazter guzietan gure erlisione sailduco egia nausiac eta beharrenac ahanziac baitituzte? Egia batzu badire baitezpada jakin behar direnac salbatzeco, eta bertze batzu jakitea manatuac garenac.

Egia horiec ongi jakinen ditu zure liburu ttikia noizean behin iracurtzen duenac; eta bada liburu hori iracur diteke ezti ezti, eta hatsa hartuz, hiru edo lau orenez. Balimba ez ahal da nihor iracurtu nahico ez duenic pichcaca bederen eta noizetic noizera!

Catichima, erraten zuen aphezpicu saildu eta jakintsun batec, zeruco gakhoa da.

Erabil dezagun eskuetan gakho hori, atchic dezagun izpirituan catichima hori; eta zeruco gakhoac idekico dagocu zerua.

Oi! zer lastima! Urria eta zilharra baino gehiago balio duen liburua zokhorat emana eta utzia! Ez dugu urria eta zilharra hola sokho batean herdoiltzerat uzten! Idec detzagun arimaco begiac arimaco ontasunen gainean, gorphutzeco begiac gorphutzeco ontasunen gainean idekiac ditugun bezala!

Zutaz den bezenbatean, jaun errotora eta adichkide maitea, Jaincoac eman dezazula agindu duen saria!

Qui ad justitiam erudiunt multos fulgebunt quasi stellæ ad perpetuas æternitates. (Dan. 12. 3.) Bertziac erlisioneco egiez argitzen ditaztenec, argituco dute berec eta distiatuco izarrec bezala menderen mendetan.

Bastidan egina, buruilaren 17^{na} 1892^{an}.

AITA AGUSTIN,
Beneditanoen Abadea.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena :
Erabil bedi sainduki zure izena,
Ethor bedi zure erresuma,
Egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere.

Iguzu egun gure eguneco ogia,
Barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatzen dioz-tegun bezala,

Eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera,

Bainan begira gaitzatzu gaitzetic.

Halabiz.

AGUR MARIA

Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin ;

Benedicatur zare emazte guzien artean, eta benedicatur da zure sabeleco fruitua, Jesus.

Maria saindua, Jaincoaren Ama, egizu othoitz gu bekhatorosentzat, orai eta gure heriotzeco orenean.

Halabiz.

SINHESTEN DUT

Sinhesten dut Jainco Aita bothere duenaren baitan, zeruaren eta lurraren Creatzailean;

Eta Jesu-Christo haren Seme bakhar Gure Jauna baitan;

Zoin contzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez, sortu zen Maria Birjina ganic;

Pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaaren azpian, gurutzeficatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten;

Jautsi zen ifernuetarat; hirugarren egunean jeki zen biziric hilen artetic;

Igan zen zeruetara, non jarria baitago Jainco Aita guziz botheretsuaren escuinean;

Handic ethorrigo da bizien eta hilen jujatzera.

Sinhesten dut Izpiritu Sainduaren baitan;

Eliza Catholico Sainduan, Sainduen phartaliertasunean;

Bekhatuen barkhamenduan;

Haragiaren piztean;

Beti ere iraunen duen bizitzean.

Halabiz.

FEDEZCO ACTA


Ene Jaincoa, sinhesten ditut, zinez eta ene bihotz guziaz, Eliza Catholico Apostolico Erromanoac sinhesten eta iracasten dituen gauza guziaz, zeren zuc, egia bera zarenac, iracatsi baiterazcotzu.

ESPERANTZAZCO ACTA

Ene Jaincoa, esperantza dut, sinheste fermu batekin, emanen derautazula, Jesu-Christoren merezimenduen bertutez, mundu huntan zure grazia, eta, zure manamendueri jarraikitzen banaiz, bertzean zure loria, zeren hitzeman baituzu eta baitzare zure hitzetan osoki leiala.

CARITATEZCO ACTA

Ene Jaincoa, maite zaitut ene bihotz guziaz eta gauza guzien gainetic, zeren baitzare guziz ona eta osoki maitagarria : maite dut halaber ene laguna ene burua bezala zure amoreagatic.



GIRISTINO LEGEA

NORC ETA ZERTACO EGINAC GAREN

Norc eginac gare?
Jaincoac.

Zertaco eginac gare?
Jaincoaren ezagutzeco, maitatzeco eta
zerbitzatzeco.

Ongi zerbitzitzen badugu, Jaincoac zer
emanen daucu?
Emanen daucu zerua.

Eta, ez badugu ongi zerbitzitzen, zer
izanen dugu?
Izanen dugu ifernua.

Jaincoa nola da ongi zerbitzitzen?
Giristino on izanez.

GIRISTINOA ZER DEN (*)

Zer behar da giristino izaiteco?
Bathaiatua izan.

Eta giristino on izaiteco?
Bathaiatua delariĉ, Jesu-Christoc iracatsiac sinhetsi, eta Jesu-Christoc manatuac egin.

Nola iracusten da giristino dela?
Gurutzearen seinalea eginez.

Nola egiten da gurutzearen seinalea?
Escu escuina emanaz : lehenic cope-tan, gero bulharretan, handic ezkerreco sorbaldan, azkenic escuinecoan, erraiten delaric : Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz.

Nola, gurutzearen seinalea eginez, iracusten da giristino dela?
Gurutzean hil baita Jesu-Christo.

(*) Giristinoa edo Christaua, erran nahi da : *Christorekin dena.*

LEHEN PHARTEA

Giristino batec yakin eta sinhetsi behar dituenac (*)

Non aurkitzen dire giristino batec yakin eta sinhetsi behar dituenac?

Beharrenac aurkitzen dire SINHESTEN DUT edo CREDO deitzen den othoitzean.

Norc egina da othoitz hori? Apostoluec.

JAINCOA

Zer da Jaincoa?

Jaincoa da : izpiritu huts bat, eterna-
la, osoki perfeta, gauza guzien creatzailea
eta oroz gaineco nausia.

Zer da izpiritua?

(*) Gauza bat *sinhesta* da : gauza hura *egiatzat hartzea*.

Izpiritua da ezagutza duen gauza bizi bat, ezin icus ez uki ditakena.

Eta izpiritu hutsa, zer da?

Gorphutz bati lotua ez den izpiritua.

Zer da eternala?

Hasteric eta acābantzaric gabecoa.

Zer da perfeta?

On guziac dituenā.

Eta osoki perfeta?

On guziac negurriric gabe dituenā.

Zer da creatzea?

Ez deusetaric zerbeiten egitea.

Gauza guzien oroz gaineco nausia zer da?

Gauza guzietaric nahi duena egin dezakena.

*
* *

Non da Jaincoa?

Zeruan, lurrean, eta toki guzietan.

Zer daki eta zer icusten du Jaincoac?

Jaincoac guziac badazki, eta guziac icusten ditu.

Geroco gauzac ere?

Bai, geroco gauzac ere oraicoac bezala.

Zer egin dezake Jaincoac?

Jaincoac zer-nahi gauza on eta zuzen egin dezake.

Errechki ala nekhez?

Batere nekheric gabe, bere nahi choilaz.

TRINITATE SAINDUA

Zembat Jainco dire?

Ez da Jainco bat baxharra baizic.

Zembat presuna dire Jaincoa baitan?

Jaincoa baitan badire hiru presuna :

Aita, Semea, eta Izpiritu-Saindua.

Aita Jainco da?

Bai, Aita Jainco da.

Semea Jaincoa da?

Bai, Semea Jainco da.

Aita den Jainco bera, ala bertze bat?

Jainco bera; bertzeric ez da.

Izpiritu-Saindua Jainco da?

Bai, Izpiritu-Saindua Jainco da.

Aita eta Semea diren Jainco bera, ala bertze bat?

Jainco bera; bertzeric ez da.

Beraz Aita, Semea eta Izpiritu-Saindua, Jainco bakhar bat bera dire?

Bai, Aita, Semea, eta Izpiritu-Saindua, Jainco bakhar bera dire.

Eta diozu bizkitartean hiru presuna direla?

Bai egiazki, hiru presuna dire; presuna bat ez da bertze presuna: Semearen presuna ez da Aitaren presuna; Izpiritu-Sainduaren presuna ez da ez Aitaren ez Semearen presuna.

Nola ditake hori: Jainco bakhar bat hiru presunetan?

Hori da misterio bat.



Zer deitzen duzu misterioa?

Misterioa da: egia bat guc ezin com-

prenitua, bainan sinhetsi behar duguna,
Jaincoac iracatsi dauculacotz.

Jainco bakhar bat hiru presunetan,
nola deitzen da misterio hori?

Jainco bakhar bat hiru presunetan,
hori da : Trinitate Sainduco misterioa.

Aita, ala Semea, ala Izpiritu-Saindua
dire zaharrago, hazcarrago, sainduago?

Hiru presuna horiec, Jainco bakhar
bat bera direnaz geroz, bardin dire gauza
guzietan.

AINGERUAC

Zer dire Aingeruac?

Aingeruac dire : izpiritu huts batzu,
Jaincoaren laudatzeco, eta harec manan-
tuen egiteco, creatuac.

Jaincoac, creatzean berean, zer eman
zioten aingerueri?

Eman zioten saindu egiten duen grazia.

Saindu egon ziren aingeru guziac?

Ez, frangoc bekhatu egin zuten, Jain-
coari urguiluz jazarriz.

Zer egin zuten orduan bertze aingeruec?

Bertze aingeruac eman ziren Jaincoaren alde; eta izan zen gudu bat handia.

Nor ziren bai aingeru onen, bai gachtoen aintzindariac?

Aingeru onena : *Jon Doni Micael*;
gachtoena : *Lucifer*.

Norc irabazi zuen gudua?

Aingeru onec.

Zer egin zuen orduan Jaincoac?

Jaincoac aingeru oneri eman zioten zeruco zoriona; gachtoac aldiz artiki ziotuen ifernura.

Nola izendatzen dire hitz batez aingeru gachtoac?

Debruac.

*
* *

Zer hari dire aingeru onac?

Aingeru onac hari dire beti Jaincoaren laudatzen, eta Jaincoac, bai gure arimen bai gure gorphutzen onetan, manatzen diozcatenen egiten.

Beraz, aingeru onen bidez hartzen du Jaincoac gutaz artha?

Bai, gutaric bacotchari Jaincoac laguntzat eman dio aingeru bat, sortzetic heriotzeraino beti gurekin dagona.

Nola deitzen da aingeru hura?

Aingeru begiralea.

Zer hari dire debruac?

Debruac hari dire beti Jaincoaren mardaricatzen, eta ahal dituzten arima guzien galtzen.

Debrua zerc urruntzen du gure ganic?

Othoitzac, eta gurutzearen seinaleac.

On da beraz gurutzearen seinalea maiz egitea?

Bai, arras on, bereziki ur benedicatua-rekin egiten delaric.

Giristino onec noiz egiten dute gurutzearen seinalea?

Jekitzean eta oheracoan, jan aintzinean eta ondoan, lanen eta othoitzen hastean eta acabantzan.

LEHEN BURHASOAC

§ I. *Adam eta Eba.*

Zoin izan dire lehen gizona eta lehen emaztea?

Lehen gizona izan zen : Adam; eta lehen emaztea : Eba.

Adam eta Eba zergatic deituac dire lehen burhasoac?

Zeren gizon guziac heien ume baitire.

Zer behar da gizon izaiteco?

Arima eta gorphutza.

Zer da arima?

Izpiritu bat, beti bizico dena.

Jaincoac zertaric egin zituen Adamen eta Ebaren arimac?

Ez deusetaric; arima guziac hala egi-ten ditu.

Eta gorphutzac?

Jaincoac Adamen gorphutza egin zuen lur puchca batetaric, Ebarena aldiz Adamen sahets hechur batetaric.

Jaincoac, creatzean berean, zer eman zioten Adami eta Ebari?

Aingerueri bezala, saindu egiten duen grazia; eta Adamec grazia hura, galtzen ez bazuen, utzi behar zioten bere ondo-coeri.

§ II. *Lurreco parabisua.*

Jaincoac non ezarri zituen Adam eta Eba?

Lurreco parabisuan.

Zer zen lurreco parabisua?

Baratze eder bat fruitu mota guziekin.

Adami eta Ebari haizu zitzaioten fruitu hetaric guzietaric jatea?

Ez, Jaincoac bat debecatu zioten.

Zertaco?

Icusteco heia, harentzat amodioz, utzico zuten.

Utzi zutena?

Ez, ez, jan zuten.

Nola hori?

Debruac, suge itchuran agerturic, janarazi zion Ebari, eta Ebac gero Adami.

Bekhatu egin zuten beraz?

Bai, eta bekhatu handia.

§ III. *Bekhatu orisinala.*

Galdu zuen beraz Adamec bere ondocoeri utzi behar zioten grazia?

Bai, Adamec, bere bekhatuaz, galdu zuen ondocoeri utzi behar zioten grazia.

Jaincoac holacoric nahi zuen?

Ez, segurki, Jaincoac ez zuen nahi Adamec bekhatu egitea, eta grazia galtzea.

Beraz Adamen gatic, eta Jaincoaren nahiaren contra, gizon guziac graziaric gabe sortzen dire?

Bai, Adamen gatic, eta Jaincoaren nahiaren contra, gizon guziac graziaric gabe sortzen dire.

Nola deitzen da hola sortze hori?

Bekhatu orisinalarekin sortzea.

Bekhatu orisinala : zer erran nahi du hitz horrec?

Erran nahi du : *hasteticaco* (*) *bekhatua*.

*
* *

Nihor ez da bekhatu orisinala izan ez duenic?

Bai, Andre-dena Maria; Andre-dena Maria graziarekin creatua izan da.

*
* *

Adamen bekhatuac izan du bertze ondorio gachtoric?

Bai, hartaric ethorriac dire gaizkiraco dugun jaidura, eta munduco gaitz guziac; hartaric ethorria da heriotzea.

§ IV. *Jaincoa gizonaz urricaltzen da.*

Gizonac nora ganen ziren, Jaincoa ez balitz hetaz urricaldu?

Behinic-behin, bihiric ez zen zerurat helduco.

(*) *Hasteticacoa*, edo zeren munduaren hastapenetik heldu baitzaicu, edo zeren biziaren haste hastetic baitugu.

Zergatic?

Zeren ez baitzuten graziaric izanen;
graziaric gabe ez da zeruric.

Eta zergatic etzuten graziaric izanen?
Gizonac ez baitezake bere indar choilaz
grazia ardiets.

Nora ganen ziren bada gizonac?
Edo ifernura, edo limboetara.

Limboac zer dire?

Jaincoa icusten ez den toki bat.

Bertzenaz toki ona eta gozoa, ala tzarra?
Toki ona eta gozoa.

*
* *

Jaincoac, urricalduric, zer egin du gi-
zoneri zeruaren idekitzeco?

Adami eta Ebari Salbatzaile bat hitze-
man, eta gero igorri.

Zembat demboraren buruan igorri izan
du?

Lau mila urtheren buruan.

Nor da Salbatzaile hura?

Jesu-Christo.

Salbatzen ahal ziren Jesu-Christo
ethorri aintzineco gizonac?

Bai, salbatzen ahal ziren.

Nola?

Beren egimbideac bethetzen zituztela-
ric, Jaincoac agindu Salbatzailea fidan-
tziarekin iguricatuz.

JESU-CHRISTO

§ I. *Nor den.*

Nor da Jesu-Christo?

Jesu-Christo da : Jainco Semea, Trini-
tate Sainduco bigarren presuna, gizon
egina.

Zer erran nahi du Jainco Semea gizon
egin dela?

Erran nahi du, Jainco Semeac hartu
dituela eta beretu gureac bezalaco gor-
phutz bat eta arima bat.

Beraz Jesu-Christoren gorphutza eta
arima Jainco Semearen gorphutza eta
arima dire?

Bai, Jesu-Christoren gorphutza eta

arima Jainco Semearen gorphutza eta arima dire.

Berenaz eta betidanic dituenac?

Ez; bainan hartu eta beretu dituenac.

Jainco Semeac non hartu ditu gorphutza eta arima?

Birjina Mariaren sabel dohatsuan.

Noiz?

Duela hemeretzi menderen heina, Martchoaren 25^{ean}.

Nola?

Hori egin zuen Izpiritu-Sainduac.

Beraz Jesu-Christo Jainco da?

Bai, Jesu-Christo Jainco da.

Gizon?

Gizon ere bai.

Jainco eta gizon, biac batean?

Bai, Jainco eta gizon, biac batean.

§ II. *Non sortu izan den, eta hogoi eta hamar urthez bizi.*

Nor da Jesu-Christoren Ama?

Maria Saindua.

Jaincoaren ama da Maria saindua?

Bai; ezen Jesus, haren Semea, Jainco da.

Non sortu da Jesu-Christo?

Bethlemeco aberetegi tchar batean.

Noiz?

Eguberri gauan, Abendoaren 25^{ean}.

Zembat urthe bizi izan da lur huntan Jesu-Christo?

Jesu-Christo lur huntan bizi izan da hogoi eta hamahiru urtheren ingurua.

Non bizi izan da Jesus Jauna?

Hogoi eta hamar urthetaraino, Jesus Jauna bizi izan da Nazaretco etche ttiki batean.

Norekin bizi zen?

Maria bere Ama sainduarekin, eta bere Aita ordain, Josep, Mariaren lagun sainduarekin.

Zer haritzen zen?

Haurra zelaric, Mariarekin etheco lanetan; eta gero, san Josepekin, zurgintzan.

Ez zuen beraz Jainco zela iracusten?

Ez; baina ez da secular icusi hain haur eta gazte presturic.

Nola bizi zen bada Jesus Jauna lehen hogoi eta hamar urthe hetan?

Othoitzari eta lanari jarraikia, ororentzat on eta ezti, Jesus Jaunac gogotic egiten zituen Mariac eta Josepec erran guziac; bethi urrun zagon munduco builatic.

§ III. *Zer egin zuen azken hiru urthetan.*

Azken hiru urthetan, zer egin zuen Jesus Jaunac?

Judeaco bazter guzietan bere iracaspenc goraki adiarazi zituen, eta, bere hitzaren fincatzeco, miracuiluac egin.

*
* *

Zer iracasten zuen Jesus Jaunac?

Jesus Jaunac iracasten zituen zerurat heltzeco sinhetsi eta egin behar diren guziac.

Nola deitzen dire Jesus Jaunaren iracaspénac?

Deitzen dire : *Ebanjelioa*, erran nahi da : *berri ona*.

Jesus Jaunac zer zion bere buruaz ?

Huna zer zion Jesus Jaunac bere buruaz : Ni naiz Jaincoaren Semea, munduaren salbatzeko gizon egina ; nere erranari jarraikitzen dena zeruan izanen da, eta jarraikitzen ez dena, ifernuan.

Eta nola sinhetsarazten zuen egiaz mintzo zela ?

Miracuiluac eginez.

*
* *

Zer da miracuilua ?

Miracuilua da : usaiac campoco gauza bat, Jaincoaren indarrac baizic egin ez dezakena (*).

(*) Nihorc, Jaincoac baizic, ez dezake ogi bihi batetarie ogi buru bat ekharraraz ; hori bizkitartean ez da miracuilua, usaiac gertatzen den gauza baita. Bainan miracuilua litake ogi bihitic arto burua ekharraraztea, zeren Jaincoac baizic ez baitezake hori egin, eta zeren ez baita hori usaiac gertatzen.

Sainduec ere bizkitartean egiten dituzte miracuiluac?

Bai, bainan Jaincoac emanicaco indar berezi batekin.

Jaincoac miracuiluric egin dezake, edo egiteco indarra eman, gezurraren alde?

Ez, Jaincoac ez dezake deus egin gezurraren alde.

Beraz, Jesus Jaunaren miracuiluec osoki frogatzen dute, haren erranac egia direla?

Bai, Jesus Jaunaren miracuiluec osoki frogatzen dute haren erranac egia direla.

Zoin miracuilu egin du Jesus Jaunac?

Jesus Jaunac eriac bet-betan sendatu ditu, nola itsuac argitu, mainguac chuchendu; hilac piztu ditu; eta miracuiluric handiena, Jesus Jaunac bere burua piztu du.

§ IV. *Nola pairatu duen eta nola hil den.*

Hiru urthez predicatzen eta miracuilu

egiten haritu zen ondoan, zer egin zioten Jesus Jaunari?

Judasec etsaieri saldu zioten dirutan.

Nor zen Judas?

Hamabi Apostoluetaric bat.

Zer ziren Apostoluac?

Gizon erromes batzu, Jesus Jaunac laguntzat hautatu zituenac, eta hiru urthez lecuco bezala berekin ibili.

Zertaco hola hartu eta ibili zituen?

Gero munduaren lau bazterretarat igortzeco.

Zertara?

Harec erranac eta eginac mundu guziari ezagutaraztera (*).

*
* *

Nor ziren Jesusen etsaiac?

Juduac, eta bereziki Juduen aintzindariac, aphez eta bertze.

Juduec zer egin zioten Jesus Jaunari?

(*) *Apostolua* : hitz horrec erran nahi du : *igorria*.

Preso altchatu; eta gero, Pontzio Pilatusi hiltzera condenarazi.

Nor zen Pontzio Pilatus?

Aitzindari bat, toki hura, Erromaco emperadorearen izenean, manatzen zuena.

Jesus hil gabe, ez zioten asco gachteria eta oinaze jasanarazi?

Bai, zer-nahi burla eta laido; izigarriki azotaturik, buruan sartu zioten elhorrizco coro bat.

Hitz batez nola deitzen dire Jesusen pairamenac?

Deitzen dire : *Jesusen Pasionea*.

*
* *

Nola hil izan da Jesu-Christo?

Gurutze bati itzatua, bi ohoinen artean.

Non?

Calbarioco mendian, Jerusalemeco hiritic hurbil.

Zoin egunez?

Ortzirale sainduz, arratsaldeco hiru orenetaco heinean.

§ V. *Zertaco hil izan den.*

Jesus ez othe zitaken, nahi izan balu, bere etsaien escuetaric atera?

Bai, eta errechki, Jainco zenaz geroz.

Zergatic bada nahi izan du Jesu-Christoc hil?

Jesu-Christoc hil nahi izan du guretzat amodioz, gure ifernutic libratzeco, eta zeruaren guri merezitzeco.

Zerc galarazi zukun zerua, eta merezitu ifernua?

Adamen eta gure bekhatuec.

Beraz gure bekhatuen-gatic hil izan da Jesu-Christo?

Bai, gure bekhatuen-gatic hil izan da Jesu-Christo; eta gure bekhatuec dute gurutzeari itzatu.



Jesus Jaunac nola gaitu ifernutic libratu, eta nola daucu zerua merezitu?

Gurutzean ichuri duen odolaz; odol hartaz gaitu erosi.

Erosi, noren ganic?

Debruaren ganic.

Eta norentzat?

Beretzat.

Indar eta balio handia du beraz Jesu-
sen odola?

Bai, negurriric gabeco indarra eta ba-
lhoa, Jaincoaren beraren odola delacotz.

Bainan Jaincoac ez du odolico, Jaincoa
ez ditake hil?

Jainco bezala, ez; bainan Jaincoac har-
tu izan ditu eta beretu gureac bezalaco
gorphutz bat eta arima bat; eta ordutic,
bazuen odola eta hil zitaken.

*
* *

Bere odola gizon guzientzat ichuri du
Jesu-Christoc?

Bai, Jesu - Christoc gizon guzientzat
ichuri du bere odola.

Eta odol harrec munduco bekhatu gu-
ziac garbi eta khen detzazke?

Bai, eta gehiago ere.

Zerura ganen dire bada gizon guziac, odol harri esker?

Nahi balute, bai; odol hartaz baliatzen balire, bai; bainan, zembat ez da baliatu nahi ez denic!

§ VI. *Pizten da eta zerurat igaiten.*

Jesus hil zenean, nora gan zen haren arima?

Jautsi zen limboac deitzen diren ifer-nuetara.

Zertaco?

Han ziren arima sailduen bilha, gero berekin zerurat eremateco.

Eta Jesusen gorputza, zer egin zen? Ezarri zuten harrocan eginicaco hobi berri batean.

Luzaz hila egon zen Jesus Jauna?

Ez, hirugarren egunean, igande goizean, piztu zen gehiago ez hiltzeco.

Zoin egun zen igande hura?

Bazco eguna.

Norc piztu zuen Jesus Jauna?

Jesus Jauna bera piztu zen, Jainco zelacotz.

Piztu ondoan, Jesus Jauna zembat egunez egon zen mundu huntan?

Berrogoi egunez.

Zer egin zuen berrogoi egun hetan?

Ascotan agertu eta mintzatu zitzaioten apostolueri, eta, egiazki piztu zela frogatzeco, heiekin jan ere zuen.

Bertzeric zer egin zuen?

Apostolueri hitz eman zioten Izpiritu Saindua igorrico ziotela.

Eta gero zer manatu zioten?

Manatu zioten haren iracaspnac hedazetzen mundu guzian.

*
* *

Berrogoi egunen buruan, nora gan zen Jesus Jauna?

Igan zen zeruetara, non jarria baitago bere Aitaren escuinean.

Zer erran nahi du, bere Aitaren escuinean jarria dagola Jesus Jauna?

Erran nahi du, ohoratua dela, eta beti ohoratua izanen, gauza guzien nausi oroz gainecoa bezala.

Zoin egunez Jesus Jauna igan zen zeruetara?

Salbatore egunean, ortzegunarekin.

IZPIRITU-SAINDUA JAUSTEN DA APOSTOLUEN GAINERA

Nondic dakigu, Jesus Jauna nola bizi izan den, hil eta piztu?

Apostoluec erranic.

Bainan Apostoluec egia erran othe dute?

Bai, segurki; ezen beren hitzaren fincatzeco, guziec beren odola ichuri dute.

Apostoluac ez zirena gizon buru gogor beldurti batzu?

Lehen, bai; bainan Izpiritu-Saindua jaustearekin, bertze batzu bilhacatu ziren.

Jesus Jaunac noiz igorri zioten Izpiritu-Saindua Apostolueri?

Zerura gan eta hamar egunen buruan,
Mendecoste goizean, bederatzi orenetan.

Zer hari ziren orduan Apostoluac?

Hamar egun hartan, elgarren gana
bilduric, kharsuki othoitzean zagotzin.

Zer itchura hartu zuen Izpiritu-Sain-
duac, Apostoluen gainera jausteco?

Suzco mihi batzuen itchura.

Suac zer egiten du?

Argitzen eta berotzen.

Izpiritu-Sainduac zer egin zioten Apos-
tolueri?

Adimendua argitu eta bihotza berotu.

Izpiritu-Saindua izan ondoan, zer egin
zuten Apostoluec?

Berehala hasi ziren Ebanjelioaren pre-
dicatzen; hec jarria da munduan Jesu-
Christoren Eliza.

ELIZA

§ I. *Zer den.*

Zer da Eliza?

Eliza da giristinoen bilduma, Aita-Sainduac eta aphezpicuec manatzen dutena.

Eliza zergatic deitzen duzu giristinoen bilduma?

Zeren munduco giristino guziec bat egiten baitute.

Nola dute munduco giristino guziec bat egiten?

Guziec egia berac sinhetsiz, sacramendu berac hartuz; eta bereziki, guziac buruzagi berari jarraikiz.

Zoin da buruzagi hura?

Zeruan, Jesu-Christo; eta lurrean, Jesu-Christoc bere ordain ezarri duena, Aita Saindua.

Ez dute aphezpicuec ere Elizan manatzen?

Bai, bainan ez Aita-Sainduac bezala.

Non manatzen du Aita-Sainduac?

Eliza guzian.

Eta aphezpicuec?

Aphezpicu bacotchac manatzen du

choilki Elizaren pharte batean; eta han ere, beti Aita-Sainduaren azpico da.

Nola deitzen da aphezpicu bacotchac manatzen duen Elizaren phartea?

Deitzen da diosesa.

Norc emaiten dio aphezpicu bacotchari bere diosesa?

Aita-Sainduac.

Nori obeditu behar diote diosesa batéco giristino guziec?

Aphezpicuari.

Eta aphezpicuac?

Aita-Sainduari.

§ II. *Aita Saindua.*

Nor da Aita-Saindua?

Aita-Saindua da Erromaco aphezpicua.

Zergatic da Erromaco aphezpicua, eta ez bertze bat, Aita-Saindu?

Zeren Erromaco aphezpicua baita lehembizico Aita-Sainduaren ondoco zuzena.

Zoin izan da lehembizico Aita-Saindua?

Jondoni Petri Apostolua.

Jesu-Christoc noiz eta nola egin zuen Jondoni Petri Aita-Saindu?

Erran zioenean : *alha zatzic nere bildotchac, alha nere ardiac* ; Jesus Jaunac orduan bere arthalde guzia, erran nahi da bere haur guziac, ezarri zituen Jondoni Petriren escuco.

Eta diozu Erromaco aphezpicua dela Jondoni Petriren ondoco zuzena?

Bai, Erromaco aphezpicua da Jondoni Petriren ondoco zuzena.

Nola hori ?

Jondoni Petri, hil zenean, Erromaco aphezpicu baitzen.

Beraz Jesu-Christorekin izan nahi duenac, Erromaco aphezpicuarekin, Aita-Sainduarekin izan behar du?

Bai, Jesu-Christorekin izan nahi duenac, Erromaco aphezpicuarekin, Aita-Sainduarekin izan behar du.



Aita-Sainduac zerbeit manatzen due-
nean, norc behar ditu harec manatuac
egin ?

Giristino guziec : ala fededun choilec,
ala aphezec, ala aphezpicuec.

Aita-Sainduac, Erlisioneco gauzez min-
tzo denean, hala ez denic iracats dezake ?

Ez, Erlisioneco gauzetan, Aita-Sain-
duac ez dezake hala ez denic iracats,
mintzo balinbada : 1^{ic} Elizaren buruzagi
bezala, 2^{ic} garbiki diolaric, giristino guziec
behar dutela haren errana sinhetsi.

Eta gauza segura da, Aita-Saindua hola
mintzo denean, haren hitza beti egia dela ?

Bai, arras segura, Jainco bat badela
bezen segura; hori ukatzen duena ez da
giristino.

Casu berezi hortaric campo ere, ez
othe du egiazco giristinoac, arimaco gau-
zetan, Aita-Sainduaren hitza onhartu
behar ?

Bai segurki, egiazco giristinoac, ari-

maco gauzetan, beti onhartu behar du Aita-Sainduaren hitza; ez da zerurateco bide seguragoric.

§ II. *Eliza zer hari den eta beti harico.*

Noiz artio iraunen du Elizac?

Elizac iraunen du munduaren acabantzaraino.

Zergatic?

Jesu-Christoc hitzeman diolacotz.

Hori noiz hitzeman zion Jesu-Christoc Elizari?

Erran zioenean : *Zurekin naiz mundu hunec iraunen dueno.*

Eta munduac diraueno, zer harico da Eliza?

Beti gauza bera : Jesu-Christoc manatu dionaren egiten.

Zer manatu dio Jesu-Christoc?

Jesu-Christoc Elizari manatu dio, lur-reco jende guziac giristino on egitea.

Hori noiz manatu dio Jesu-Christoc Elizari?

Apostolueri erran ziotenean : *Zohazte, predica zozuete Ebanjelioa yendeki guzieren, bathaia zatzue guziac Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu-Sainduaren ize-nean.*

Horren gatic othe da Eliza deitua Catholicoa?

Bai, horren gatic : Jesu-Christoc eman diolacotz mundu guziaren salbatzeco manua, eta beti ahalaz manu horren bethetzen hari delacotz; *catholicoa*, hitz horrec erran nahi du, *orotarac hedatzen dena.*

§ III. *Ez dela salbatzeric Elizan baizen.*

Salbatzeco, sinhetsi eta egin behar dire Elizaren erranac?

Bai, salbatzeco, Elizaren erranac sinhetsi eta egin behar dire; hortaz campo ez da zeruric.

Zergatic hori?

Zeren Jesu-Christoc hola nahi baitu.

Nondic dakigu Jesu-Christoc hola nahi duela?

Berac erranic.

Zer erran du Jesus Jaunac?

Jesus Jaunac erran diote Apostolneri, Elizaren aintzindarieri : *Zuec entzutenac, neroni nau entzuten; zuec arbuiatzen zaituztenac, neroni nau arbuiatzen.*

Jesus Jaunac ez du Eliza bat baizic egin?

Ez, Jesus Jaunac ez du Eliza bat baizic egin, eta hura da Eliza Catholicoa.

Eta Eliza Catholicotic campo diren guziac ifernuraco dire?

Beren faltaz Elizatic campo balin-badire bai.

Eta ez balin-badire hala beren faltaz?

Orduan, beren egitecoeri jarraikitzen badire, Jaincoac argituco ditu eta salbatuco.

§ IV. *Libro utzi behar dela Eliza.*

Norc debeca dezake Eliza arimen salbatzetic?

Zuzenez nihorc : nihorc ez dezake es-

curic izan Jaincoaren nahiaren contra.

Utzi behar da beraz Eliza, nahi duenaren iracastera eta egitera arimen salbatzeco?

Bai, hala utzi behar da; Elizac ez dezake gauza onic baizic iracats eta egin.

Zergatic Elizac ez dezake gauza onic baizic iracats eta egin?

Zeren Izpiritu Saindua beti Elizarekin baita, arima gure gorphutzarekin bezala.

Zertaric da bereziki ageri Izpiritu-Saindua Elizarekin dela?

Ageri da, bai Elizan beti izaiten diren saindu handietaric, bai Elizan beti egiten diren miracuiluetaric.

Beraz Elizari jazartzea, Izpiritu-Sainduari jazartzea da?

Bai, Elizari jazartzea, Izpiritu-Sainduari jazartzea da.

*
* *

Bekhatu da beraz Elizaren contra zerbeiten egitea?

Bai segurki, bekhatu da eta bekhatu handia, Elizaren contra zerbeiten egitea.

Eta bekhatu da ere Elizaren etsaien laguntzea eta hazcartzea?

Bai, bekhatu da Elizaren etsaien laguntzea eta hazcartzea.

Nola hori?

Zeren gaizki balin-bada Elizaren jotzea, gaizki baita hura jo nahi duteneri jotzeco indarra emaitea.

Noiz eta nola bereziki laguntzen eta hazcartzen dire Elizaren etsaiac?

Bozetan, bere boza eman ez Elizaren etsai bati.

Bekhatu da beraz bere boza Elizaren etsai bati emaitea?

Bai, bekhatu da bere boza Elizaren etsai bati emaitea.

Eta nor da Elizaren etsaia?

Elizaren contraco legeac egin nahi dituenac, edo eginac atchiki.

§ V. *Sainduen phartaliertasuna.*

Jesu-Christoren haurric bada lur huntaric campo?

Bai, Jesu-Christoren haurrac badire zeruan, eta badire purgatoriotan.

Eta hec ere Elizaren ume dire?

Bai, hec ere Elizaren ume dire.

Badire beraz hiru Eliza : zerucoa, purgatoriotacoa, eta lurrecoa?

Ez, ez da Eliza bat baizic; bainan Elizaren umeac hiru tokietan dire : zeruan, purgatoriotan eta lur huntan.

*
* *

Hiru toki horietaco Elizaren umec elgar laguntzen dute?

Bai, Elizaren ume guziec elgar laguntzen dute.

Nola hori?

Hasteco, zeruan direnec lurrecoac laguntzen dituzte, heientzat graziac ardie-tsiz.

Lurrecoec nola dituzte purgatoriotacoac laguntzen?

Heientzat othoitzac eta obra onac eginenez.

Eta lurrecoec ere elgar laguntzen dute?

Bai, eta hainitz : ezen edo-zoin giristinoac grazia bat ardiesten duenean, edo obra on bat egiten, bertze giristino guziec beti hartan pharte badute.

Guziec pharte bardina?

Ez, giristino onec gehiago, tzarrec gutiago.

Bertzalde, ez othe dezakete lur huntaco giristinoec elgarrentzat othoitz egin?

Bai segurki, eta egitea arras on da.

*
* *

Nola deitzen da Elizaren umen elgar laguntze hori?

Deitzen da *Sainduen phartaliertasuna*.

Elizaren haurrac zergatic deitzen dire sainduac?

Hasteco, zeruco eta purgatoriotaco guziaz ziac hala dire.

Bainan lurrecoac?

Lurrecoec ere, Elizan badituzte sardutuzeco behar dituzten guziaz; eta, Jaincoari esker, hainitz bada sainduric.

HERIOTZEA — BI JIJAMENDUA

Sortu bezen segur, gizona zer eginda?

Hiltzen.

Zer da hiltzea?

Hiltzea da arima gorphutzetic berecotea.

Nora doha arima, gorphutzetic berecotechi denean?

Arima Jaincoaren aintzinean agertzanda.

Zertaco?

Jujatua izaiteco.

Eta jujatu ondoan, arima nora doha?

Edo beticotz zerura, edo beticotz ifernura; edo purgatoriotara, handic egun batez zeruan sartzeco.

*
* *

Zoin arima doha chuchen zerura?

Batere bekhatuic ez duena, eta bertalde lehengo bekhatuez aski penitentzia egin duena.

Zoin ifernura?

Bekhatu mortala duena.

Zoin purgatoriotara?

Zerbeit bekhatu ttiki duena, edo lehengo bekhatuez aski penitentzia egin ez duena.

*
* *

Hilaren gorphutza zer bilhacatzen da?

Lur eta herrauts, munduaren acabantzaraino.

Eta munduaren acabantzan?

Orduan gorphutza piztuko da, eta lehengo arimarekin berritz bat egingen.

Zer gertatuco da gero?

Egundainoco jende guziac piztu direnean, guziac elgarretara bilduric, Jesu-Christoc betan jujatuco ditu.

Betaco jujamendu horrec hautsico othendu lehen baxharca egin jujamendua?

Ez, segurki, bainan bai fincatuco.

Zertaco bada izanen da bigarren jujamendu hori?

Lehembizicoric, Jaincoa zoin zuzenaden orori iracusteco.

Eta gero?

Gero, mundu huntan ardura zangopean dagotzin giristino onen ohoratzeco, eta hambat ohoratuac diren gachtaginen herrausteco.

Jujamendu horren ondotic, nora ganen dire jendeac?

Edo gorphutz eta arima zerura, edo gorphutz eta arima ifernura; ez da gehiago purgatorioric izanen.

ZERUA. IFERNUA. PURGATORIOAC.

Zerua zer da?

Jaincoa dena-den icustea, eta hartaz beticotz gozatzea.

Zer atsegin da, eta zer atsegabe zeruan?

Atsegin guziac; atsegaberie batere.

*
* *

Ifernua zer da?

Jaincoaz beticotz gabetua izaitea, eta beticotz su izigarri batean erretzea.

Zer atsegin da eta zer atsegabe ifer-
nuan?

Atseginie batere, atsegabe guziac.

*
* *

Purgatoriotan hainitz pairatzen da?

Bai hainitz: mundu huntan paira ditaken baino hainitz gehiago.

Nola laguntzen dire purgatoriotac arimac?

Othoitzez, penitentziez, obra onez, indulientziez, eta bereziki mezaco sacrificioaz.

BIGARREN PHARTEA

Giristino batec egin behar dituenac

Zer egin behar da zerurat heltzeco?

Behar dire Jaincoaren eta Elizaren manamenduac begiratu.

JAINCOAREN MANAMENDUAC

Zembat Jaincoaren manamendu dire?
Badire hamar.

Errazkitzu :

1. Jainco bat adora zazu,
Halaber maita osoki.
2. Juramenturic zuc ez duzu,
Ez zinic eginen banoki.
3. Igandeac begira zatzu,
Jauna ere zerbitza debotki.
4. Aita eta ama ohora zatzu,
Bizi zaitezen luzeki.
5. Nihor, obraz hilen ez duzu,
Ez borondatez gachtoki.

6. Pallardiza eginen ez duzu,
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertzena ebatsico ez duzu,
Ez atchikico injustoki.
8. Lecucotasunic ez duzu,
Ez hitzic erranen faltsoki.
9. Gutizia izanen ez duzu,
Bertzen onaren gaizki.
10. Bertzen esposic ez duzu,
Desiratuco lizunki.

LEHEN MANAMENDUA

Jainco bat adora zazu
Halaber maita osoki.

§ I. *Adorazionea.*

Zer manatzen daucu Jaincoaren lehen
manamenduac ?

Manatzen daucu lehembizicoric : Jain-
coaren adoratzeara.

Zer da Jaincoaren adoratzeara ?

Hori da : Jaincoaren aintzinean apha-

tzea, osoki perfeta delacotz bere baitaric, eta gauza guzien nausia.

Guc deus onic badugu gure baitaric?

Ez, ditugun guziac Jaincoaren ganic ditugu; eta horren-gatic gare osoki Jaincoaren escuco.

Nola behar da Jaincoa adoratu?

Barnez eta campoz.

Zergatic campoz ere?

Zeren gorphutza, arima bezala, Jaincoaren ganic baitugu.

Jaincoa nola adoratzan da campoz?

Ahoz othoiztuz, belhaunicatuz, ahuspez emanaz, eta bertze asco gisaz.

§ II. *Sacrifizioa.*

Nola zaio Jaincoari adoratzan dela (*) hobekienic iracusten?

Sacrifizioaz.

Zer da sacrificioa?

(*) Erran nahi da : *Gauza guzien nausitzat, ezagutzen dela.*

Sacrifizioa da : gauza bizi bat Jaincoaren ohoretan hiltzea.

Gauza bizi bat Jaincoaren ohoretan hilez, zer aithortzen eta iracusten da?

Aithortzen eta iracusten da, gauza hura Jaincoarena dela.

Hura bai; bainan ez da iracusten, munduco gauza guziaz Jaincoarenac direla?

Bai, hori ere iracusten da.

Nola bada?

Zeren munduco gauza hoberenac Jaincoarenac balin-badire, tcharrenac ere hala direla bichtan baita.

Eta, zoin dire munduco gauza hoberenac?

Gauza biziac.

*
* *

Nola deitzen da sacrificioan hiltzen den gauza bizia?

Bitima.

Eta hiltzen duena?

Sacrificatzailea.

§ III. *Sainduen ohoratzea.*

Jaincoaz campo, nor adora ditake?

Nihor.

Zergatic?

Zeren, Jaincoaz campo, nihorc deus onic ez baitu bere baitaric.

Ez dire beraz sainduac, ez eta ere Ama Birjina, adorutzen?

Adorutzen, ez; ohoratzen choilki.

On da sainduen ohoratzea?

Bai, on eta behar.

Zergatic?

Sainduac baitire Jaincoaren adichkideac, eta Jaincoa hetan bizi baita.

Birjina Maria dohatsua bertze saindu guziac baino gehiago ohoratu behar da?

Bai, Birjina Maria dohatsua bertze saindu guziac baino hainitz gehiago ohoratu behar da.

Zergatic?

Bertze sainduac ez baitire Jaincoaren adichkideac baizic, eta Birjina Maria al-diz baita Jaincoaren ama.

*
* *

Haizu da sainduen harrizco, zurezco edo bertzelaco idurien ohoratzea?

Bai, haizu da eta arras on.

Zergatic da haizu?

Zeren ez baita hetan batere harria edo zura ohoratzen, baina bai hec iracusten duten saindua.

Zergatic da arras on?

Zeren, hec icusiz, sainduetz hobeki orhoitzen baita.

§ IV. *Adorazionearen contraco bekhatuac*

Zoin dire, gure tokietan, Jaincoari zorzaion adorazionearen contra maizenic egiten diren bekhatuac?

Hec dire : sacrileioa, superstizionea, eta aztietan ibiltzea.

*
* *

Zer da sacrileioa?

Sacrileioa da : Jaincoari contsecratu a dena gaizki ibiltzea.

Zer da Jaincoari contsecraturic?

Jaincoari contsecratuac dire : jendeac, nola aphezac; tokiac, nola elizac; gauzac, nola aldareco untziac.

Zoin da maizenic egiten den sacrileioa? Sacramenduac gaizki errezebitzea.

★
★ ★

Zer da superstizionea?

Superstizionean sartzen dire bi gauza.

Zoin da lehena?

Elizac onhesten ez duen bezala Jaincoaren ohoratzea.

Zoin da bigarrena?

Uste izaitea othoitz eta debozione bartzuen bidez, segurki izanen direla, segurki bederen izan ez ditazken gauzac.

★
★ ★

Zer dire aztiac?

Aztiac dire : gauzaric gorderenac ezagut detzazketela iracusten duten jende batzu.

Ezagut othe detzazkete bada?

Debruaren laguntzarekin, bai, hein batetaraino; bertzenaz, ez.

Aztiac dire beraz edo debruaren mutilac, edo ohoin gezurti batzu?

Bai hala dire : edo debruaren mutil, edo ohoin gezurti batzu.

Eta diozu aztietan ibiltzea bekhatu dela?

Bai, hala diot.

Zergatic?

Zeren, aztietan ibiliz, laguntzen eta hazcartzen baitire beren tzarkerietan : aztietan ibiltzaileric ez balitz, ez litake aztiric.

§ V. *Fedea, Esperantza, Caritatea.*

Bertzeric zer manatzen daucu Jaincoaren lehen manamenduac?

Manatzen dauzcu : fedea, esperantza, eta caritatea.



Zer da fedea ?

Fedea da : Elizac iracatsiac osoki eta zin-zinez sinhestea.

Zergatic sinhestea ?

Elizari Jaincoac erran diozcalacotz, eta Jaincoaren hitza beti egia delacotz.

Fedearen contra nola egiten da behatu ?

Elizac iracatsiac ez icasiz edo ez sinhe-
tsiz (*).

(*) Fedea, ondicotz, hainitz ttikitua da giristinoen artean. — Fedea da Elizac iracatsiac sinhestea. Baina, egungo egunean, norc sinhesten ditu Elizac iracatsiac, sinhesten guziac eta bihotzetic! — Eliza mintzo zaicu bai herrietaco artzaiben, bai jaun aphezpicuen, bai bereziki Aita-Sainduaren ahoz. Bada herrietaco artzainac, edo jaun aphezpicuac, edo Aita-Saindua bera mintzo direnean, zembat giristino ez da, beren baitan egiten dutenic, edo bardin goraki erraiten : « Huntan chuchen mintzatu « da; bertze hortan holachet. — Han aiphatu behar « zuen, baina bertze hura ez. — Holaco gauza « churi dela dio; niri aldiz iduritzen zait beltch « dela? » Eta holatsuco bertze asco. — Fede bizia

*
* *

Zer da esperantza?

Esperantza da : Jaincoac hitzemanac zin-zinez iguricatzea.

Zergatic zin-zinez iguricatzea?

Jaincoac bere hitza beti atchikitzen duelacotz.

izaitea da hori? Horiec egiazco giristino baten solasac dire? Ez, miletan ez. — Elizac berac daki zer iracaspén eman behar duen. Nihorc ez du escuric Elizari erraiteco : « Hau iracatsico duzu, eta hura, « ez. » Nihorc, Eliza mintzo denean, ez du escuric haren iracaspénetan berehcunderic egiteco, batzuen onhartzeco, eta bertzen arbuiatzeco. *Eliza mintzo denean, giristinoen egimbidea da, giristino guziena, harec iracatsiac sinhestea eta zuzentzat atchikitzea.* Hori egia da, mintzo direnean herrietaco artzainac; egiago oraino, mintzo direnean jaun aphezpicuac; eta osoki egia, mintzo denean Aita-Saindua.

Zembat eta zembat giristino ez da, itsumenduan bizi denic egia horri buruz! Beren ustez giristino dire, beharbada giristino on, eta izaitez casic *protestant*. Bai, protestantec bezala, nahi dituztenac baizic ez dituzte onhartzén Elizaren erranetan; eta hec ere, ez batere Elizac iracasten dituelacotz, bainan bai bereri hala direla iduritzen zaiotelacotz, beren gogoracoac dituztelacotz.

O Jainco ona, pitz eta susta zazu gure fedea!

Zer hitzeman daucu Jaincoac?

Berac manatuen egiteco grazia, eta, egiten baditugu, zerua.

Zoin da esperantzaren contraco bekhatu-ric handiena?

Etsitzea, Jaincoac emanen daucula agindu grazia edo zerua.

*
* *

Zer da caritatea?

Caritatea da: Jaincoaren maitatzea bere gatic, eta laguna Jaincoaren gatic.

Jaincoa bere gatic maitatzea zer da?

Hori da Jaincoa maitatzea, zeren den berenaz osoki maitagarria.

Eta nola da Jaincoa berenaz osoki maitagarria?

Osoki perfeta delacotz.

Beraz Jaincoaren maitatzea egiten daucun ongiaren gatic, ez da caritatea?

Ez, ez da caritatea, Jaincoaren maitatzea egiten daucun ongiaren gatic.

Gauza ona da bizkitartean amodio hori?

Bai, arras ona eta beharra ; bainan caritatea hobea.

Jaincoa bere gatic maite duenac zembat du maite ?

Maite du gauza guziac baino gehiago.

Nola hori ?

Zeren Jaincoac gauza guziec baino gehiago balio baitu.

★
★ ★

Nola egiten da bekhatu caritatearen contra ?

Edo zoin bekhatu mortalez ; ezen bekhatu mortala da, Jaincoa baino bertze zerbeit nahiago izaitea.

Ez ditazke beraz bekhatu mortala eta caritatea elgarrekin izan ariman ?

Ez, bekhatu mortala eta caritatea ez ditazke elgarrekin izan ariman.

Beraz, caritateac bekhatu mortala arimatic khentzen du ?

Bai, khentzen du ; eta horra zergatic arras on den ahalaz maiz piztea bere baitan caritatea.

Hortaracotz zer egin behar da?

Gogoan erabili Jaincoa dela munduco gauza guziaz baino miletan eta miletan ederrago, aberatsago, garbiago, sainduago, hitz batez, maitagarriago (*).

§ VI. *Lagunaren alderaco amodioa.*

Zergatic diozu caritatea duenac laguna maite duela Jaincoaren gatic?

Zeren, norbeit maite denean, haren iduria eta haurra maite izaiten baita.

Eta laguna, Jaincoaren iduria eta haurra da?

Bai, laguna Jaincoaren iduria eta haurra da.

Beraz laguna maite ez duenac, ez du Jaincoa egiazki maite?

Ez, laguna maite ez duenac, ez du Jaincoa egiazki maite.

(*) Mundu huntaco gauzaric ederrenac eta maitagarrienac ez dire Jaincoaren edertasunaren eta maitagarritasunaren itzal ez-deus batzu baizic. Hortaz orhoit, eta Jaincoari berari galde *caritatea*.

Haizu da lagunaren maitatzea egiten daucun ongiaren gatic?

Bai, arras haizu; bainan amodio hori ez da caritatea.

Zer da bada caritatea lagunari buruz?

Caritatea da lagunaren maitatzea Jaincoaren gatic, Jaincoaren iduria eta haurra delacotz.

Nola frogatzen da laguna maite dela?

Bere behar-orduetan, bereziki arima-coetan, ahalaz lagunduz.

*
* *

Zoin dire lagunaren amodioaren contra maizenic egiten diren bekhatuac?

Badire bia; herra eta escandala.

Zer da herra?

Herra da : lagunaren gaitza nahi izaittea, edo duen gaitzaz atsegin hartzea.

Zer da escandala?

Escandala da : zerbeit hitz edo egintza macur, laguna gaizkirat ekhar dezakena.



Zer dire fedezco, esperantzazco, eta caritatezco actac?

Hec dire : bihotzeco fedea, esperantza eta caritatea iracusten dituzten othoitz batzu.

BIGARREN MANAMENDUA

Juramenturic zuc ez duzu
Ez zinic eginen banoki.

Zer debecatzen du Jaincoaren bigarren manamenduac?

Debecatzen ditu bereziki : blasfemia, eta zin edo juramentu gaizki eginac.

Zer da blasfemia?

Blasfemia da : Jaincoaren edo sainduen contra mintzatzea.

Bekhatu handia da blasfemia?

Bai, ditaken handienetaric bat, guziz Jaincoaren beraren contraco blasfemia.



Zer da zina edo juramentua ?

Hura da : Jaincoa bere hitzaren lecucor
edo berme hartzea.

Beraz zin egileac hau dio : Jaincoa nere
orde mintzo balitz, nic errana erran le-
zake ?

Bai, zin egileac hori ber-bera dio :
Jaincoa nere orde mintzo balitz, nic er-
rana erran lezake.

Zin egin ditake kheinuz, deus erran
gabe ?

Bai ; eta egiten da, nola besoa alchatuz,
gurutzea eginez.

Noiz egiten da zin gaizki ?

Gezuraren gainean, edo beharric gabe
egiten denean.

Bekhatu handia da gezuraren gainean
zin egitea ?

Bai bekhatu handia da gezuraren
gainean zin egitea.

Zergatic ?

Erraitea baita : Jaincoa mintzo balitz,
ni bezala gezurrez mintza litake.

★
★ ★

Bertzeric zer debeatzen du Jaincoaren
bigarren manamenduac ?

Jaincoaren izena arinki aiphatzea.

Debruaren izena aiphatzea bekhatu da?

Bekhatu, ez; bainan, itsusi.

★
★ ★

Bertze zerbeit oraino debeatzen du
manamendu horrec ?

Bai : botuen nahitarat haustea.

Zer da botua ?

Botua da : zerbeit onic Jaincoari, be-
khatuaren pean, hitzemaitea.

Gauza ona da botua ?

Bai, arras ona; bainan, bakhan egin
behar litake cofesoraren baia gabe.

HIRUGARREN MANAMENDUA

Igandeac begira zatzu
Jauna ere zerbitza debotki.

Zer manatzen daucu Jaincoaren hirugarren manamenduac?

Igande egunen ongi begiratzea.

Zer behar da igande egunen ongi begiratzeco?

Meza entzun, eta lan debecaturic beharric gabe ez egin.

*
* *

Bekhatu handia da igandetan meza ez entzutea?

Bai, bekhatu handia da igandetan meza ez entzutea.

Bururen buru entzun behar da meza?

Bai, bururen buru entzun behar da meza?

Bekhatu da beraz meza hasi ondoan sartzea?

Bai, bekhatu da meza hasi ondoan sartzea.

Zer adinetan hasten da meza entzuteco egimbidea?

Zazpi urthetan.

Zoin meza entzun behar da?

Edo zoin; bainan arras on da predica den mezan aurkhitzea.

Meza entzuten ahal ez duenac, behar du etchean zerbeit othoitz egin?

Ez eginican ere, ez da bekhatuic; bainan egitea hainitz gauza ona da.

Zer diozu igandetaco bezperez?

Diot: giristino onec laket dutela bezperetan causitzea, eta Jaincoac benedictzen dituela.

*
* *

Zoin dire igandetan debecatu lanac?

Nekhatzaile lanac, erran nahi da: mai-

zenic biziaren irabazteco egiten diren escu-lanac.

Izenda zatzu lan hetaric zembeit?

Lur lan guziac, hargintza, zurgintza, zapataintza, harozgoa, jostea.

Lan horietan beharrez haritzea, zer bekhatu da?

Batere; bainan on da, behar orduan ere, herrico erretoraren baia galdetzea.

Lan horietan beharric gabe hariz bekhatu mortala egin ditake?

Bai segur, aski luze haritzen bada.

*
* *

Igandec begiratzen ez dituzteneri, zer gertatzen zaiote?

Maiz eta ardura Jaincoac, mundu hontan berean, garrakki jotzen ditu.

LAUGARREN MANAMENDUA

Aita eta ama ohora zatzu
Bizi zaitezen luzeki.

Zer manatzen du Jaincoaren laugarren manamenduac?

Manatzen du lehenic, nola ekhar burhasoac, eta bertze aintzindari zuzenac.

Eta bertzeric zer manatzen du?

Burhasoeri eta aintzindarieri manatzen diote nola ekhar beren haurrac eta azpicoac.

§ I. *Burhasoac eta haurrac.*

Haurrec zer egimbide dute burhasoen aldera?

Haurrec burhasoac behar dituzte : maitatu, errespetatu, eta obeditu.

Zergatic maitatu?

Heien ongi-egileac direlacotz : haurrec burhasoen ganic dute ontasunic handiena, bizia.

Zergatic errespetatu?

Burhasoac haurreri buruz Jaincoaren ordainac direlacotz.

Zergatic obeditu?

Jaincoac haurrac burhasoen escuetan ezarri dituelacotz (*).

*
* *

Nola behar zaiote burhasoeri maite direla iracutsi?

Lagunduz beren behar orduetan, eritasunetan, eta bereziki hiltzeco menean.

Burhasoeri nola galtzen zaiote errespetua?

Elhe gachtoac erranez, burlac eginez, eta gehienic, joz.

Jaincoac bereziki benedicatzen ditu burhasoac ohoratzen dituzten haurrac?

Bai, segurki, eta maiz bizi huntaric beretic.

(*) *Haurrac, diote Liburu Sainduac, burhasoeri obedi gauza guzietan.*



Burhasoec zer egimbide dute haurren aldera?

Haurren maitatzea, eta heien gorphutzaz eta arimaz artha hartzea.

Burhasoec haurrentzat zer egin behar dute gorphutzeco gauzetan?

Hazi eta beztitu, eta ahalaz bizitzeco segida eman.

Eta haurren arimentzat, zer egin behar dute burhasoec?

1^{ic} Escolatu edo ezcolarazi, beren heinaren arabera; 2^{ic} galbidetaric zaindu; 3^{ic} beren hitzez eta egintzez ongirat ekharri.

Zer escola bereziki eman behar diote burhasoec haurreri?

Lehen lehenic, eta gauza guzien gainetic, burhasoec haurreri ezagutarazi eta maitarazi behar diote giristino legea.

Burhasoen egimbide hertsia da beraz haurrac giristino legea funtsez iracusten den escoletan emaita?

Bai, burhasoen egimbide hertsia da beren haurrac, ahal dutelarik, giristino legea funtsez iracasten den escoletan emaita (*).

§ II. *Nausi etheco-andreac eta sehiaç.*

Sehien egimbideac zoin dire?

Nausi etheco-andreac errespetatzea, lanari jarraikitzea, eta etheco ona bilhatzea.

Eta nauçi etheco-andrec zer egimbide dute sehien aldera?

Onac izaitea, zuzen den saria emaita, giristino urhatsetan ibilaraztea.

(*) *Legearen arabera, escola batean ez denean othoitzic egin behar, ez eta catichimanic iracatsi, escola hura da Jaincoric gabeco escola. Holaco escoletarat ez ditazke haurrac igor EZIN BERTZEAN bai-
zic. Ahal duten burhaso guzic haurrac eman BEHAR dituzte escola giristinoetan, non ez duten bertzetan emaiteco zerbeit arrazoin aski handi.— Eta, aipatu escoletan othoitzac eta catichima egiten balietz ere legearen ichilic, beren haurrac ahalaz eman behar lituzkete escola giristinoan.*

§ III. *Cargudunac eta heien azpicoac.*

Zer egimbide dute gobernamentu gizonen, eta bertze herrietako cargudunen?

Behar dute : 1^{ic}, Eliza lagundu edo berderen libro utzi; 2^{ic} beti zuzenari bere bidea eman; 3^{ic} ahalaz zerga guti ezarri; 4^{ic} jende cheheaz artha berezi bat izan.

Zer zor zaiote gobernamentu gizonen, eta bertze herrietako cargudunen?

Zor zaiote errespetua, eta obedientzia, contzientzia colpatzen ez duten gauzetan (*).

Badire bertze cargudun batzu, herrietakoac eta gobernamentuac baino hobeki errespetatu eta obeditu behar direnac?

Bai, Elizako cargudunac, nola erreto-
rac, aphezpicuac, eta guziz Aita Saindua.

(*) Gobernamentu batec lege tzarrac, erlisionearen contraco legeac, egiten dituenean, lege heieri jazarriz ez da batere gobernamentuari zor zaion errespetua hausten. Aitzitic, giristino guzien egimbide hertsia da halaco legen ahalaz ezeztatzea eta khonaraztea.

BORTZGARREN MANAMENDUA

Nihor obraz hilen ez duzu
Ez borondatez gachtoki.

Zer debeatzen daucu Jaincoaren bortzgarren manamenduac ?

Debeatzen daucu : lagunaren laidoztatzea, eta beharric gabe jotzea, colpatzea eta hiltzea.

Noiz izan ditake norbeiten hiltzeco edo colpatzeco beharra ?

Bertzela bere bizia, edo ontasun handi bat begira ez ditakenean.

Gizonari haizu zaio bere buruaren hiltzea ?

Ez, secular nihori ez zaio haizu bere buruaren hiltzea.

SEIGARREN ETA BEDERATZIGARREN MANAMENDUAC

Pallardiza eginen ez duzu
Obraz ez gogoz likhiski.

Bertzeren esposic ez duzu
Desiratuco lizunki.

Zer debecatzen dute Jaincoaren seigarren eta bederatzigarren manamenduec?

Debecatzen dituzte : lohikeriazco gogoetac, gutiziac, hitzac eta obrac.

*
* *

Gogoeta edo gutizia lohi bat izaitea bekhatu da?

Bekhatu dela ohartzen ez bada, ez.

Eta bekhatu dela ohartzen bada?

Orduan ere ez da bekhatu, berehala khentzerat egiten bada.

Beraz, bekhatu egiteco, behar da, be-

khatu dela ohartzen delaric, gogoetan edo gutizian nahitarat egon?

Bai, bekhatu egiteco, behar da, bekhatu dela ohartzen delaric, gogoetan edo gutizian nahitarat egon.

Eta zembat dembora egon behar da?
Den gutiena aski da.

*
* *

Arima eta gorphutza lohikeriatic garbi atchikitzeo, zer egin behar da?

Behar da lehembizicoric : lohikeriara dakharketen gauzetaric artharekin urundu.

Gauza hetaric zembeit izenda zatzu?

Solas lizunac, liburu eta gazeta tzarrac, dantzac, gazten arteco nahastecac, *eta bereziki buruz-buruac* (*).

Garbi bizitzeco, bertzeric oraino zer behar da?

Ez alfer bizi, negurriz edan, gorphutza

(*) Bi-biac.

ez guriki ekharri, eta aphaindurac ez
sobra maitatu.

Horiec aski dire, lohikeriaco bekha-
tuetan ez erortzeco?

Ez, ez dire aski.

Zer behar da bada bertzeric?

Ama Birjina hainitz othoiztu, eta, gazte
delaric bederen, maiz eta ardura comu-
niatu.

ZAZPIGARREN ETA HAMARGARREN MANAMENDUAC

Bertzena ebatsico ez duzu
Ez atchikico injustoki.

Gutizia izanen ez duzu
Bertzen onaren gaizki.

Zer debeatzen dute Jaincoaren zazpi-
garren eta hamargarren manamenduec?

Debeatzen dute : bertzen ontasuna
zuzen contra hartzea, atchikitzea, eta gu-
tiziatzea.

Zer egin behar da, bertzen ontasuna hartu edo atchiki denean?

Behar zaio jabeari itzuli.

Eta jabeari ezin itzul baditake?

Orduan, eman behar zaiote jende beharreri.

Eta itzultzecoric ez bada?

Orduan, behar da itzultzeco chede zina hartu, eta itzultzecoa ahalaz bildu.

Zer egin behar da gauza bat atzematen denean?

Behar da jabea bilhatu, eta agertuco den-ez iguricatu.

Eta ez bada agertzen?

Orduan, gauza atzemana atchic ditake, bainan, hobe da jende beharreri emaita.

Norbeiti zerbeit bidegabe ekharri zaioenean bere ontasunetan, zer egin behar da?

Bidegabea nahitarat ekharri bada, behar da pagatu.

ZORTZIGARREN MANAMENDUA

Lecucotasunic ez duzu
Ez hitzic erranen faltsoki.

Zer debeatzen du Jaincoaren zortzigarren manamenduac?

Debeatzen ditu : gezurrac, gezurrezco lecucotasunac, medisentziac eta calomniac.

Zer da gezurra?

Gezurra da : bere ustez hala ez dena erraitea, bertzeri sinhetsarazteco.

Noiz da gezurra zilhegi?

Gezurra ez da seculan zilhegi.

Zer da gezurrezco lecutotasuna?

Hura da : justizian lecuco denean, gezurrez mintzatzea.

Bekhatu handia da hori?

Bai, bekhatu handia da.

Zer da medisentzia?

Medisentzia da : bertzen huts gordea beharric gabe agertzea.

Zer da calomnia?

Calomnía da : bertzen contra gezurrez mintzatzea.

Medisentziaz edo calomniaz norbeiti ohorea ttikitu edo khendu zaionean, zer egin behar da?

Ahalaz bihurtu.

ELIZAREN MANAMENDUAC

Zembat Elizaren manamendu dire?
Badire sei.

Errazkitzu :

1. Meza saindua entzun zazu,
Besta, igandetan, debotki!
2. Bestac begira zatzu
Manamenduzcoac sainduki.
3. Bekhatuac cofesa zatzu
Urthean behin osoki.
4. Gorphutz saindua errezebi zazu
Bazcoz bederen humilki!
5. Garthac, Bichiliac, barur zatzu,
Garizuma ere osoki.
6. Ortziralean janen ez duzu
Ez larumbatean haragi.

LEHEN ETA BIGARREN MANAMEN- DUAC

Meza saindua entzun zazu
Besta, igandetan, debotki.
Bestac begira zatzu
Manamenduzcoac sainduki.

Zer diozu Elizaren lehen manamen-
duaz?

Diot : sartzen dela Jaincoaren hirugar-
ren manamenduan.

Eta bigarrenac zer manatzen daucu?

Manatzen daucu : zembeit besta egun
begiratzea igandeac bezala.

Zoin dire besta hec?

Frantzian badire lau : Eguberri, Jon
Doni Salvatore, Andre dena Maria Aboz-
tucoa, eta Omia-Saindu.

HIRUGARREN MANAMENDUA

Bekhatuac cofesa zatzu
Urthean behin osoki.

Zer manatzen daucu Elizaren hiru-
garren manamenduac?

Manatzen daucu : urthean behin gure bekhatuac ongi cofesatzea.

Zoin adinetan hasten da egimbide hori?

Zazpi urthe bethe direnean (*).

Non eta nori behar da cofesatu?

Nahi den tokian, eta aphezpicuaren baia duen edo-zoin aphezi.

Urtheco zoin egunetan behar da cofesatu?

Edo-zoinetan.

LAUGARREN MANAMENDUA

Gorphutz Saindua errezebi zazu
Bazcoz bederen humilki.

Zer manatzen daucu Elizaren laugarren manamenduac?

(*) Bizkitartean, zazpi urthez azpico hain batec ere, bekhatu mortalean balin-bada, behar du, hiltzeco menean bederen, cofesatu. Horra zergatic burhasoec behar lituzketen beti hiltzera dohatzin bortz sei urtheco haurrac ahalac cofesarazi; eta, hiltzeco menetic campo ere, haur heien cofesaraztea arras on litake.

Manatzen daucu : urthean behin, Bazco demboran, ongi comuniatzea.

Non egin behar da Bazcoco comunio-nea?

Bazcoco comunio-nea egin behar da herrico elizan.

Eta, bertze nombeit egin nahi balin-bada?

Orduan, behar da lehenic herrico artzainaren baia ardietsi.

BORTZGARREN MANAMENDUA

Garthac, Bichiliac, barur zatzu
Garizuma ere osoki.

Zer manatzen daucu Elizaren bortzgarren manamenduac?

Manatzen daucu barur egitea : garizuman, garthetan, eta zembait besta-buru bezperetan.

Zer da barura?

Barura da : egunean egiazco aphairu bat baizic ez egitea, arratsean *colazionea* deitzen den aphairuchca batekin.

Barur egunetan mehe egin behar da?
 Bai, non ez duen Elizac gizena sori
 uzten.

Gizena sori denean, haizu da aphairu
 berean haragikia eta arrainkia nahaste-
 catzea?

Ez, nahasteca hori ez da haizu (*).

Colazionean zertaric jan ditake?

Eguerditan jan zitazken guzietaric,
 salbo haragikia eta arroltzeac.

Goizetan zerbeiten jatea haizu da?

Bai, bainan ez untza bat edo bia baino
 gehiago.

Edariac barura hausten du?

Ez, edariac ez du barura hausten.

Zoin adinetan hasten da barur egiteco
 egimbidea?

Hogoi-ta bat urthe bethe direnean.

Adinaren edo bertze zerbeiten gatic
 barur egiten ez denean, mehe egin behar
 da?

Bai, ahal delaric, beti mehe egin behar
 da.

(*) Garizumaco igandetan ere ez da haizu.

SEIGARREN MANAMENDUA

Ortziralean janen ez duzu
Ez larumbatean haragi.

Zer debeatzen du Elizaren seigarren manamenduac?

Debeatzen du ortzirale larumbatetan gizen egitea.

Zer da gizen egitea?

Haragikia edo urinkia jatea.

Noiz hasten da mehe egiteco egimbi-dea?

Zazpi urthetan.

Erientzat eta pobrentzat, bekhatu da gizen egitea?

Ez, erientzat eta pobrentzat, ez da bekhatu gizen egitea.

BEKHATUA

§ I. *Zer den.*

Zer da bekhatua?

Bekhatua da : Jaincoari desobeditzea.

Nola desobeditzen zaio Jaincoari?
Harec debeatua eginez, edo harec manatua ez eginez.

Non icusten da Jaincoac zer debeatzen duen, eta zer manatzen?
Jaincoaren eta Elizaren manamenduetan.

★
★ ★

Gauza bat egitean, ez bada uste Jaincoac debeatzen duela, bekhatu egiten da?

Ez, ez da bekhatu egiten.

Eta uste bada debeatua dela?
Orduan bekhatu da, nahitarat egiten bada.

Beraz, bekhatu egiteco, behar da : gauza bat nahitarat egin, Jaincoac debeatua dela uste delaric?

Bai, bekhatu egiteco, behar da : gauza bat nahitarat egin, Jaincoac debeatua dela uste delaric.

§ II. *Bi bekhatu.*

Zembat bekhatu mota dire?

Badire bia : bekhatu mortala, eta bekhatu beniala.

Zer erran nahi du hitz horrec : *mortala?*

Erran nahi du : *hiltzen duena.*

Zer hiltzen du bekhatu mortalac?

Bekhatu mortalac ariman hiltzen du *graziaren bizia.*

Zer da beraz bekhatu mortala?

Hura da : bekhatu bat galarazten dautuna saildu egiten gaituen grazia, halaber zerua, eta merezitzen ifernua.

*
* *

Grazia dugunean, noren adichkide gare?

Jaincoaren adichkide.

Eta bekhatu mortalaz grazia galtzen duguean?

Debruaren adichkide.

Beraz, bekhatu mortala egiten duenac Jaincoa uzten du debruarentzat?

Bai, bekhatu mortala egiten duenac Jaincoa uzten du debruarentzat, debrua nahiago du Jaincoa baino.

Mesprezio handia da beraz bekhatu mortala Jaincoarentzat?

Bai, ditaken handiena : ezen bertze zerbeit Jaincoa baino nahiago izaitea, erraitea bezala da : Jaincoa ez dela gauza guziaz baino hobea, beraz ez dela Jainco.

Eta guretzat, gaitz handia da bekhatu mortala?

Bai, ditaken handiena : ezen, galarazten daucu oroz gaineco ontasuna, Jaincoa.

*
* *

Bekhatu benialac ere galarazten ditu grazia, Jaincoaren adichkidantza, zerua?

Ez bekhatu benialac ez ditu galarazten grazia, Jaincoaren adichkidantza, zerua.

Zer calte egiten du bada bekhatu benialac?

Bekhatu benialac hozten du gure Jaincoarekilaco adichkidantza; arima uzcurtzen du eta trabatzen zeruco bidean; merezitzen du Purgatorioa.

Gaitz handia da bekhatu beniala?

Bai, bekhatu mortalaren ondotic, ditaken gaitzic handiena.

§ III. *Bekhatu mortala.*

Nola egiten da bekhatu mortala?

Bekhatu mortalaren egiteco, behar da: Jaincoac debecatu gauza handi bat, osoki ohartuz eta osoki nahitarat egin.

Gauza debecatu bat ttikia dela uste deanean, zer bekhatu egiten da?

Bekhatu beniala; *ez da secular uste den baino bekhatu handiagoa egiten.*

Eta ustez gauza handia bada, bainan erdi ohartuz egiten?

Orduan ere bekhatu beniala.

Eta osoki ohartuz egiten bada, bainan nahi osoa gabe?

Orduan ere bekhatu beniala (*).

§ IV. *Bekhatu capitalac.*

Zer dire bekhatu capitalac?

Bekhatu capitalac dire : bertze bekhatu guzien ithurburuac.

Zer erran nahi du hitz horrec : *capitalac*?

(*) Bai, hala da; bainan ongi har gogoan chehetasun hauc :

Lehembizicoric, gauza debecatu *handi bat, osoki ohartzen delaric, nahitarat egiten denean, arras nekhe da* ez dadin bekhatu mortala izan.

Bigarrenecoric, bekhatu mortalaren egiteco behar den nahia izan ditake, gauza bat frango errencurarekin eta bihotz-minekin eginican ere. Pilatusec, segurki, nahiago zuken alde batetic Jesus ez condenaturic; bainan egin baitzuen! Halaber, egungo egunean, zembat giristino ez da, dakitenac gauza bat arras gaizki dela, gauza harren egitera barneac ekhartzen ez dituenac, eta bizkitartean gauza hura egiten dutenac, zerbeiten beldurrez, edo zerbeiten esperantzan. Pilatus egiazcoac! Halaco giristinoec nahikeria dute choilki bekhatuaren ez egiteco. Hekien nahia bekhaturaco da; guzien buruan, bekhatua hautatzen dute, bekhatua nahi dute.

Eta horren-gatic, erran bezala gauza handia denean, nahi dute eta egiten bekhatu handia, bekhatu mortala.

Erran nahi du : *Bertzen buru direnac.*

Zembat bekhatu capital dire?

Badire zazpi : urguilua, zicoizkeria, lohikeria, becaizkeria, gormandiza, colera eta alferkeria.

Zer da urguilua?

Urguilua da : bere buruaz uste handiegia izaitea.

Zoin da urguiluric gachtoena?

Buruzagieri ihardokitzerat ekhartzen duena.

Zer da zicoizkeria?

Zicoizkeria da : lureco ontasunac, eta bereziki dirua, sobra maitatzea.

Zer da lohikeria?

Lohikeria da : garbitasunaren contra-co atseginac maitatzea.

Zer da becaizkeria?

Becaizkeria da : bertzen onaz atsegabe izaitea.

Zer da gormandiza?

Gormandiza da : jan edanac sobra maitatzea.

Zer da colera?

Colera da : norbeiten edo zerbeiten
contra sobra suhartzea.

Zoin da coleraric tzarrena?

Mendecatzero dakharkena.

Zer da alferkeria?

Alferkeria da : laneco, eta bereziki gi-
ristino urhatsetaco, uzcur eta nagi izai-
tea.

HIRUGARREN PHARTEA

Giristino batec galdetu eta errezebitu
behar dituenac

GRAZIA

§ I. *Zer den.*

Gure indar choilez hel gitazke zerura ?
Ez, grazia gabe, ez gitazke hel zerura.
Zer da grazia ?

Grazia da : creaturec beren indar choi-
lez ardiets ez dezaketen dohain bat,
Jaincoac zerurat helarazteco emaiten
daucuna.

Zer da dohaina ?

Urriric emana den gauza.

Urriric emaiten daucu beraz Jaincoac
grazia ?

Lehembizico grazia, bai beti; bainan harrekin, bertzeac merezi ditazke.

Zeri esker emaiten daucu Jaincoac grazia ?

Jesu-Christoren odolari esker.

§ II. *Bi grazia.*

Zembat grazia dire ?

Bia : bat, gu baitan egoiten dena ; eta bertzea, egoiten ez dena.

Nola deitzen dire bi grazia horiec ?

Lehena : saildutzen gaituen grazia ; bigarrena, saildu izaiteco laguntzen gaituen grazia.

*
* *

Beraz gu baitan dagon graziac saildu egiten gaitu ?

Bai, gu baitan dagon graziac saildu egiten gaitu.

Beraz, graziaco estatuan izaitea, eta saildu izaitea, horiec biac bat dire ?

Bai, graziaco estatuan izaitea eta saildu izaitea, horiec biac bat dire.

Nola gaitu graziac saindu egiten?

Gure ariman ezarriz, eta casic chertatuz, bigarren bizi bat.

Zer bizi?

Jesusen beraren bizia.

Beraz graziazco estatuan den giristinoa Jesusekin bat egina da?

Bai, hala da; eta hala delacotz, Jaincoaren adichkide da.

Eta hala delaric hiltzen bada, nora doha?

Badoha adichkide duen Jaincoaren gana, zerura.

Graziazco estatuac, bertze zer on dakharke?

Orduan eginicaco obra on guziec beren saria izanen dutela zeruan.

Zer! obra on guziac ez dire zeruan saristatuac?

Ez, graziazco estatutic campo egin obra onac ez dire zeruan saristatuac.

Osoki galduac othe dire bada obra on hec?

Ez, balia ditazke graziazco estaturat
heltzeco.

★
★ ★

Noiz emana izan zaicu lehen lehenic
saindu egiten duen grazia?

Emana izan zaicu bathaioan.

Zerc khentzen daucu grazia hori?

Khentzen daucu bekhatu mortalac.

★
★ ★

Bertze grazia, gu baitan egoiten ez
dena, Jaincoac zertaco emaiten daucu?

Emaiten daucu saindutasunaren ar-
diesteco, begiratzeco eta emendatzeco.

Jaincoac noiz emaiten daucu grazia
hori?

Emaiten daucu behar edo on dugu-
nean.

Grazia hori da beraz, Jaincoac arimari
saindu izaiteco emaiten dion laguntza bat?

Bai, halachet da : Jaincoac arimari

saindu izaiteco emaiten dion laguntza bat.

Eta grazia horrec nola laguntzen du arima?

Emanez gaizkitic urruntzeco eta ongiaren egiteco gogoa eta indarra.

Gauza beharra da beraz grazia hori?

Bai, osoki beharra : grazia hori gabe, adimendua duenic ez ditake salba (*).

*
* *

Grazia nola ardiesten da?

Ardiesten da bereziki *othoitzaz* eta *sacramenduetan*.

OTHOITZA

§ I. *Zer den.*

Zer da othoitza?

Othoitzà da : Jaincoari bihotzetic mintzatzea.

(*) Grazia hori gabe zerura badohatzi bathaiaturic hiltzen diren haur ttikiac.

Zeren erraiteco?

Adoratzeco eta laudatzeco, eskerren bihurtzeco, barkhamendu escatzeco, eta bereziki haren laguntzaren galdetzeco.

Othoitza choilki bihotzez egiten da?

Ez, egin ditake, edo choilki bihotzez, edo bihotzez eta ahoz.

Zer diozu choilki ahoz egiten den othoitzaz?

Diot hura ez dela othoitza; othoitzac bihotzetic behar du ethorri.

*
* *

Zoin da othoitzetan hoberena?

Jesu-Christoc berac iracutsi othoitza :
Gure Aita, eta harrekin, *arrosoria*.

§ II. *Zer galde ditaken othoitzean.*

Zer galde ditake Jaincoari?

Galde ditazke on diren gauzac guziac, nahiz arimacoac, nahiz gorphutzecoac.

Gorphutzeco gauzac arimacoac bezala galdetzen dire?

Ez, arimaren salbatzeco behar direnac galdetzen dire ausarki, hec beti on baitire.

Eta gorphutzeco gauzac?

Gorphutzeco gauzac galdetu behar dire, arimaren caltetan izanen ez diren negurrian.

Jaincoac beti entzuten ditu gure othoitzac?

Salbatzeco behar diren gauzetan, bai beti, ongi eginac direlaric.

Eta bertzetan?

Bertzetan ere, othoitz ongi egina ez da secular galdua (*).

§ III. *Othoitza nola egin behar den.*

Othoitza nola egin behar da?

Othoitza egin behar da : zer hari den ohartuz, humiltasunekin eta fidantziarekin.

(*) Jaincoac ez daucu beharbada emanen galdetzen diogun hura, bainan bai bertze zerbeit hain onic edo hoberic.

*
* *

Zergatic, zer hari den ohartuz?

Burla bat bezala baita jaunen Jaunari ez-acholatuki, gogoa barraiaturic mintzatzea.

Bekhatu da beraz othoitza gogoa barraiaturic egitea?

Ohartuz eta nahitarat hala egiten bada, bai; bertzenaz, ez.

Zer egin behar da, gogoa barraiatua dela ohartzen denean?

Gogoa bildu, eta othoitza aintzinat egin.

Othoitza zergatic egin behar da humiltasunekin?

Jaincoa zeru lurren Nausia delacotz, eta gu aldiz ez deus batzu, bekhatoros batzu.

Zergatic fidantziarekin?

Jaincoa gure Aita guziz ona delacotz.

*
* *

Othoitzaren behar den bezala egiteco, zer da hoberenic?

Hasteracoan orhoitzea, Jaincoari mintzatzera dohala.

Gure othoitzari nola emanen diogu indarric handiena?

Jesusen izenean, Jesusekin batasunean eginez.

On da elgarrekin othoitz egitea?

Bai arras on, nahiz elizan, nahiz etchentan.

Zergatic?

Jesusec errana baita : *Bi edo hiru lagun bilduac direnean nere othoizteco, hannaiz heiekin.*

§ IV. *Noiz, non, eta norentzat egin behar den othoitz.*

Othoitz ez egitea noiz da bekhatu?

Hori erraitea, ez da errech; baina gauza segura da, othoitzeco lazo dena laster bekhatuan erorico dela.

Noiz da bada on othoitz egitea?

Giristino on izan nahi dutenec maiz eta ardura othoitz egiten dute.

Zergatic?

Zeren Jaincoari beti zor baitiogu amodia eta ohorea, eta zeren beti Jaincoaren beharretan baigare.

Giristino onec noiz bereziki egiten dute othoitz?

Hasteco, tentazionetan, erran nahi da: debruae gaizkirat ekharri nahi ditue-nean.

Gero?

Gero : goizetan, arratsetan, lanaren hastean, eta lanen artetic ere batzuetan.

*
* *

Non egin behar da othoitz?

Othoitz non nahi on da; bainan elizan, bere etchean, du Jaincoac hobekienic entzuten.

*
* *

Norentzat behar dugu othoitz egin?

Othoitz egin behar dugu gerontzat,

eta bertzentzat, bai bizientzat, bai hilentzat.

Gauza ona da bertzentzat othoitz egitea?

Bai, arras ona, bereziki bekhatorosentzat eta purgatoriotaco arimentzat.

§ V. *Aingeruen eta sainduen othoiztea.*

Jaincoaz bertzeric othoitz ditake?

Bai, aingeruac, sainduac, eta guziz aingeruen eta sainduen erregina, Andredena Maria, othoiztea arras on da.

Aingeruac eta sainduac Jaincoa bezala othoizten dire?

Ez, Jaincoari erraiten zaio : *eman diezaguzu* holaco grazia ; aingerueri eta saindueri aldiz : *ardiets diezaguzue* grazia hura.

Zergatic hori?

Zeren Jaincoaren ganic heldu baitire grazia guziac, ithurritic ura bezala.

Zoin saindu eta aingeru behar dugu bereziki othoiztu?

Guzien gainetic, Birjina Maria Saindua; gero San Josep, gure aingeru begiraleara, eta patroin saindua.

SACRAMENDUAC

Zer da Sacramendua?

Sacramendua da : ageri den seinale bat Jesu-Christoc hautatua, guri grazia-aren emaiteco.

Zer da ageri den seinalea?

Ageri den zerbeit, bertze zerbeit ageri ez denic ezagutarazten duena.

Zer ezagutarazten du sacramenduetan ageri den seinaleac?

Ezagutarazten du sacramendu bacot-chac zer grazia berezi emaiten dion arimari.

Zerbeit chehetasun emazkitzu, gauza horren argitan ezartzeco?

Huna : bathaioan ageri den urac ezagutarazten du, sacramendu horrec arima

garbitzen duela ; halaber, gorphutz-sainduan ageri diren ogi eta arno itchurec ezagutarazten dute, sacramendu horrec arima *hazten* duela.

Zembat sacramendu dire ?

Badire zazpi : bathaioa, confirmazionea, gorphutz-saindua, penitentzia, anontzioa, ordena, eta ezcontza.

*
* *

Nola berechten dire sacramenduac ?

Berechten dire bi multchutan : badire hilen sacramenduac, eta badire bizienac.

Zoin dire hilen sacramenduac ?

Bathaioa eta penitentzia.

Zergatic deitzen dire bathaioa eta penitentzia hilen sacramenduac ?

Eginac direlacotz *bereziki*, graziaren bizia emaiteco bizi hura ez duten ari-meri.

Zergatic diozu hortaco eginac direla *bereziki* ?

Zeren sacramendu horiec errezebi bai-

titazke graziazco estatuan delaric ere (*).

*
* *

Bertze bortz sacramenduac, zergatic deitzen dire bizien sacramenduac?

Zeren, heien ongi errezebitzeco, arimac izan behar baitu bere egiazco bizia : grazia.

Bizien sacramenduec ez diote beraz arimari graziaren bizia emaiten?

Ez, maizenic bederen; bainan bai jandanic duen bizia hazcartzen; eta bertzalde, sacramendu bacotchac bere grazia emaiten dio.

Zergatic diozu : maizenic bederen?

Zeren batzuetan bizien sacramenduec bekhatu mortala khentzen baitute arimatic.

Noiz hori?

Bekhatu mortalean delaric errezebitzen badire, ustez graziazco estatuan den.

(*) Hala nola bekhatu mortalic izan gabe cofesatzen denean.

★
★ ★

Sacramenduac ongi errezebitzen dituzten guzietan bardin grazia izaiten dute?

Ez, sacramendu bat hobekienic errezebitzen duenac, graziatic gehiena izaitendu.

★
★ ★

Sacramendu guzietan behin baino gehiagotan errezebi ditazke?

Ez, badire hiru, behin baizic errezebi ez ditazkenac : bathaioa, confirmazionea eta ordena.

Zergatic ez ditazke behin baizic errezebi?

Zeren ezartzen baitute ariman marca bat ezin khendua.

Zoin marca?

Bathaioac, Jesusen haurraren marca; confirmazioneac, Jesusen soldadoarena; ordenac, Jesusen ministroarena.

BATHAIOCO SACRAMENDUA

Zer da bathaioa?

Bathaioa da : sacramendu bat, bekhatu orisinala khentzen duena , eta egiten Jaincoaren eta Elizaren ume.

Zerekin bathaiatzen da?

Egiazko urarekin.

Bathaiatzeco zer egin behar da?

Ura ichuri bathaiatu nahi denaren buruaren gainera, dembora berean erraiten delaric :

Bathaiatzen haut Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu-Sainduaren izenean.

Ura ichurtzen duenac berac behar ditu baitezpada hitzac erran?

Bai, ura ichurtzen duenac berac behar ditu baitezpada hitzac erran.

Norc bathaia dezake?

Nor-nahic eman bathaioa beti ona da; bainan, behar orduz campo, ez zaio nor-nahiri bathaiatzea haizu.

Behar orduz campo, non egin behar du bathaioac?

Elizan, aphezaren escutic.

*
* *

Bathaiatua izan gabe salba ditake?

Ez, bathaiatua izan gabe ez ditake salba, bi casuz campo.

Zoin dire bi casu hec?

Lehena: Jesu-Christorentzat bere odolaren emaita; bigarrena: caritatezco acta bat bihotzetic egitea.

Bainan, bigarren casu hortan, behar da gero ahal denean bathaioa errezebitu?

Bai, segurki: bertzenaz ez da salbamenduric.

*
* *

Zer dire aitabitchia eta amabitchia?

Hec dire bathaiatua denarentzat arimaco aita eta ama bezala.

Zer egiten dute bathaioan?

Haurra bathaio-harrian atchikitzen, eta haren orde debruari ukho egiten.

Zer egimbide dute aitabitchi-amabit-chiec?

Burhasoen escasean, behar diozcate bathaioan atchiki dituzteneri salbatzeco behar direnac iracatsi

CONFIRMAZIONECO SACRAMENDUA

Zer da confirmazionea?

Confirmazionea da : sacramendu bat, Izpiritu-Saindua emaiten duena grazia frangorekin.

Zer grazia berezi emaiten du confirmazioneac?

Erlisioneco egiaç hazcarki sinhesteco, eta heien alde beldurric gabe agertzeco grazia.

Norc emaiten du confirmazioneco sacramendua?

Maizenic Jaun Aphezpicuac.

Zergatic diozu : *maizenic*?

Zeren aphez choil batec eman baitezake, Aita Sainduaren baiarekin.

Nola emaiten da confirmazionea ?

Confirmatzen denaren copetan gurutzearen seinalea eginez, *chrisma sainduarekin*, eta dembora berean hitz batzu erranez.

Zer da *chrisma* saindua ?

Olio usain oneco bat, aphezpicuac ortzegun sainduz contsecratzen duena.

Zoin hitz erraiten dire ?

Hitz hauc : *Marcatzen zaitut gurutzearen seinaleaz, eta hazcartzen Chrisma salbagarriaz, Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean.*

Zer diozu confirmazionea, ahal dute-laric, errezebitzen ez dutenez ?

Diot : lazo batzu direla, beren arima hainitz graziaz gabetzen dutenac.

Zer behar da confirmazionearen ongi errezebitzeco ?

Bathaiatua delaric, erlisioneeco egia beharrenac jakin.

GORPHUTZ-SAINDUA

Zer da gorphutz-saindua?

Jesu-Christo oso osoa, ogiaren eta arnoaren itchuran.

*
* *

Zertaric egiten da gorphutz-saindua?
Ogitic eta arnotic.

Noiz eta nola?

Meza sainduan, aphezac contsecrazioneco hitzac erran dituen bezen laster.

Zoin dire hitz hec?

Aphezac ogiaren gainean erraiten du :
hau da nere gorphutza; arnoaren gainean : hau da nere odola.

Zer gertatzen da, aphezac hitz horiecin erraitearekin?

Ogi guzia bilhacatzen da Jesusen gorphutz, arno guzia Jesusen odol.

Ez da bada ogitic eta arnotic deus gelditzen?

Deus, itchura edo iduria baizic.

Zer dire ogiaren eta arnoaren itchura eta iduria?

Ogian eta arnoan ageri direnac, nola colorea, usaina, gustua.

Lehen ogi zena, nola deitzen da con-tsecratu ondoan?

Ostia saindua.

Ostian bada batere ogiric?

Ez, batere.

Bizkitartean ogia iduri du, ogiaren itchura du?

Iduri, bai; itchura, bai; bainan ez baita hala.

Zer da bada?

Jesus, ogiaren itchuran.

*
* *

Jesusen gorputza da choilki ogiaren itchuran, eta Jesusen odola arnoaren itchuran?

Ez, Jesus oso osoa da, bai ogiaren, bai arnoaren itchuran.

Nola hori?

Jesus beti bizi baita, eta, jende bizian, ez baititake gorphutza ez odoletic ez arimatic berech.

Jesusen Jaincotasuna ere gorphutz-sainduan da?

Bai, segurki : ezen Jesusen gizontasuna ez da haren Jaincotasunetic berechten.

*
* *

Jesus Jaunac zerua uzten du, ostia sainduan aurkhitzeco?

Ez, Jesus betan aurkhitzen da, bai zeruan, bai munduco ostia saindu guzietan.

*
* *

Gorphutz-saindua adoratu behar dugu?

Bai, gorphutz-saindua adoratu behar dugu.

Ostia sainduan, ogiaren itchura raticatzen denean, Jesus Jauna ere zaticatzen da?

Ez, Jesus oso osoa aurkhitzen da ageriden zati bacotchean.

Zergatic?

Gorphutz-saindua delacotz Jesus gure Jaincoa.

Jesus Jauna zertaco egiten da gorphutz-saindu?

Gure arimen hazteco, eta bere Aita Jaincoari sacrificatzeco.

Sacramendu eta sacrificio da beraz gorphutz-saindua?

Bai hala da : *sacramendu da, gure arimen hazteco delaric, eta sacrificio, meza sainduan.*



GORPHUTZ-SAINDUKO SACRAMENDUA

§ I. Zer den.

Zer da gorphutz-sainduko sacramendua?

Hura da : sacramendu bat, Jesu-Christo oso osoa daucana ogiaren eta arnoaren itchuran, gure arimen hazteco.

§ II. *Comunione saindua.*

Jesus Jaunac noiz hazten gaitu gorphutz-sainduaz?

Comuniatzen dugunean.

Zer da comuniatzea?

Gorphutz-sainduaren errezebitzea.

Beraz comuniatzen duenac Jesus oso osoa bere baitan errezebitzen du?

Bai, comuniatzen duenac Jesus oso osoa bere baitan errezebitzen du.

Eta Jesus haren arimaren hazcurri egiten da?

Bai, Jesus haren arimaren hazcurri egiten da.

Nondic dakigu hori?

Jesus Jaunac berac erranic : *Nere haragia egiazco janari da, nere odola egiazco edari; har zazue eta jan, har zazue eta edan* (*).

(*) Hiltzeco bezperan, apostoluekin egin zuen azken afarian, Jesus Jaunac hartu zuen ogia, eta apostolueri eman, ziolaric : *Har zazue eta jan, hau da nere gorphutza*. Hartu zuen gero arnoa, eta er-

Hazcurri horrec zer indar du gure baitan?

Hasteco, Jesusekin osoki bat egiten gaitu.

Eta bertzeric zer egiten du?

Bekhatu benialac khentzen, jaidura tzarrac ezeztatzen, eta ongiraco errech-tasun handia emaiten.

§ III. *Noiz behar den comuniatu.*

Noiz behar da comuniatu?

Comuniatu behar da urthean behin bederen, Bazco demboran, eta gero hiltzeco menean.

Bazco demboran ez comuniatzea bekhatu handia da?

Bai, Bazco demboran ez comuniatzea bekhatu handia da.

ran : *Har zazue eta edan, hau da nere odola. HAU EGIZUE ene orhoitzapenetan.*— Azkeneco hitz horiez : *Hau egizue ene orhoitzapenetan*, Jesus Jaunac apostolueri, eta hec bezala aphez izanen zireneri, eman zioten gauza beraren, erran nahi da gorphutz-sainduaren, egiteco ahala.

Bekhatu da Bazco demboraz campo ez comunitatzea?

Ez, ez da bekhatu; bainan hainitz on da maizago comunitatzea.

*
* *

Norentzat da on maizago comunitatzea?
Guzientzat, bainan bereziki gaztentzat.

Zergatic?

Zeren gehiago nekhatzen denac, gehiago jan behar baitu.

Eta uste duzu, arimaco gauzetan, gaztec bertzec baino nekhe gehiago dutela?

Bai, segurki, gaztec nekhe gehiago dute graziazco estatuan bizitzeco.

Nola hori?

Zeren gaztec gogoa arin baitute eta odola bero : indar handia behar dute beren jaidura tzarren garhaitzeco, eta galbidetaric urruntzeco.

Eta zerc emanen diote indar handi hori?

Zeruticaco janariac, comunione sainduac.

Beraz, giristinoki bizi nahi duten gaztec, behar dute maiz eta ardura comuniatu?

Bai, giristinoki bizi nahi duten gaztec behar dute maiz eta ardura comuniatu.

§ IV. *Nola den ongi comuniatzen.*

Zer behar da ongi comuniatzeco?

Arimaz bezembatean, izan behar da bekhatu mortalic gabe.

Eta arras ongi comuniatzeco, zer behar da?

Behar da bekhatu benialen uzteco nahia izan, eta hartaraco grazia Gorphutz-sainduari bihotzetic galdegin.

Zer comunione egiten du bekhatu mortala duenac?

Comunione gachtoa.

Bekhatu handia da comunione gachtoa?

Bai, sacrileio bat ikharagarria, adimendua itsutzen eta bihotza gogortzen duena.

*
* *

Gorphutza nola behar da, ongi comu-
niatzeco?

Barur, erran nahi da : gauerdiz geroz
ez jana ez edana.

Beti barur behar da comuniatzeco?

Bai, beti, non ez den eri delaric comu-
niatzen.

Barura hausten da hortzen artean gel-
ditu purruchcac, edo hobietaric ethorri
odol chortac iretsiz?

Ez; bainan hobe da horiec guziac aha-
laz camporat artikitzea.

Soineco berezirik behar da comunia-
tzeco?

Ez; izan behar da choilki garbiki eta
onheski emana.

§ IV. *Comuniatu aintzinean.*

Bada comuniatu aintzinean egin be-
harricaco othoitz berezirik?

Ez, nahi duenac nahi dituen othoitzac
egin detzazke.

Zoin dire bizkitartean orduan egitea arras on diren othoitzac edo actac?

Hec dire : fedezco, adorazionezco, humiltasunezco, esperantzazco, urrikizco, amodiozco eta gutiziazco actac.

Egizkitzu acta horiec :

*
* *

Fedezco acta. — Jesus Jauna, gorphutzeco begiez icusten bazintut baino hobeki sinhesten dut, oso osoa aurkhitzen zarela ostia sainduan, eta zu behar zaitudala errezebitu.

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, adoratzen zaitut ogiaren iduriaren pean gordea; zu zare egiazki nere Jaincoa.

Humiltasunezco acta. — Jesus Jauna, ez naiz gai nere bihotzean sar zaiten, hambat bekhatu egin dudan ondoan; bainan errazu choilki hitz bat, eta nere bihotza sendatua izanen da.

Esperantzazco acta. — Jesus Jauna, esperantza dut, ni baitan egoitera ethorritz nere arima garbituco duzula, eta betheco zure graziaz eta zure amodioz.

Urrikizco acta. — Jesus Jauna, handizki damu dut nere bekhatuez egin dauzkitzudan laidoez, zeren zaren osoki ona eta maitagar-

ria ; zin-zinez hitz dautzut, zure graziarekin batean, beti eta gauza guzietan eginen dudala zure nahi saindua.

Amodiozco acta. — Jesus Jauna, zembat maite naizun ! Nahi naizu zure haragiaz eta odolaz hazi. Ah ! nic ere maite zaitut, maite nere bihotz guziaz, nere arima guziaz, nere indar guziez. Nahi naiz bizi eta hil zure amodioan.

Gutiziazco acta. — Zato beraz, Jesus Jauna, zato nere gana ; zato, egon zaite ni baitan, eta egin zazu nitaz nahi duzuna. Zurea naiz, zuri gogotic emaiten natzaitzu, osoki eta beticotz.

§ VI. *Comuniatu ondoan.*

Comuniatu ondoan, zer egin behar da ?
Bildutasunean egon, gogoa eta bihotza Jesusekin.

Noiz artio ?

Bederen, ostia sainduac ogiaren itchura galdu artio.

Zergatic ?

Zeren, ordu artio, Jesus Jauna gure bihotzean baitago.

Zembatsu dembora heldu da hori ?

Oren laurdento baten heina.

Ez da beraz comuniatu eta berehala elizatic ilki behar, ez eta ere meza erran den bezen laster?

Ez, segurki; Jesusentzat errespetuz eta gure onetan, ez dugu hala ilki behar.

Zergatic diozu : gure onetan?

Zeren ez baita dembora hoberic, Jesusen ganic behar direnen ardiesteco.

Zer othoitz egin behar zaio orduan Jesus Jaunari?

On da bacotchac, bere behar edo chede berezien araberaco othoitzac egin detzon.

Hortaz campo, zoin dire comuniatu ondoan egitea on diren othoitzac edo actac?

Hec dire bereziki : adorazionezco, esker-onezco, emaitzazco, amodiozco, galdezco eta chede-zinezco actac.

Egizkitzu acta horiec?

*
* *

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, adoratzen zaitut nere bihotzean, adoratzen aingeruekin, eta zeruco eta lurreco sainduekin batean, adoratzen bereziki Andre dena Mariarekin batean.

Esker-enezco acta. — Jesus Jauna, eskerric minenac dauzkitzut, ni ganat ethorri nahi izan duzulacotz comunione sainduan. Ordainez, zer egin dezaket zuretzat?

Emaitzazco acta. — Jesus Jauna, emaiten nartzaitzu osoki eta naizen guzia, zu niri eman zaren bezala; egidazu grazia zuretzat baizic ez bizitzeco.

Amodiozco acta. — Jesus Jauna, nahi zaitut ahalaz khartsuki maitatu; pitz zazu zeronec ni baitan zure amodioa, eta amodio garbi horren suac bero, erre, suntsi beza nere bihotza.

Galdezco acta. — Jesus Jauna, emadatzu, othoi, zure manamendu sainduen begiratzeco behar ditudan grazia guziac.

Chede-zinezco acta. — Jesus Jauna, hartzen dut chede zin-zina, zuc hastio ditutzun gauza guzietaric begiratzeco, eta egiteco nere ganic galdegiten ditutzun guziac. Egidazu zure maitatzeco grazia, bai bizi naizeno mundu huntan, bai hil ondoan zeruan, betiereco zorionean. Halabiz.

*
* *

On da acta horien behin baino gehiagotan egitea?

Bai, arras on, bildutasunekin eta khartsuki egiten balin-badire.

MEZACO SACRIFIZIOA

§ I. *Zer den.*

Zer da mezaco sacrificioa?

Mezaco sacrificioa da : Jesu-Christoren gorphutzaren eta odolaren sacrificioa, ogiaren eta arnoaren itchuran.

Mezaco sacrificioa gurutzeco sacrificioa ber-bera da?

Bai, mezaco sacrificioa gurutzeco sacrificio ber-bera da, bainan bertzela egina.

Nola da sacrificio bera?

Mezan eta gurutzean bitima bera delacotz, eta sacrificatzaile bera.

Gurutzean zoin zen bitima?

Jesu-Christo gure Jauna.

Eta mezan zoin da?

Mezan ere, Jesu-Christo gure Jauna.

Gurutzean nor zen sacrificatzaile?

Jesu-Christo gure Jauna : hala dio garbiki Jon Doni Paulo Apostoluac : *maiatatu nau, eta bere burua eman du nerezat.*

Eta mezan, nor da sacrificatzaile?
Mezan ere, Jesu-Christo gure Jauna.

Aphezac du bizkitartean meza emaiten?

Bai, bainan Jesusen ordain bezala, eta haren izenean.

Nondic dakigu hori?

Mezaco hitzetaric beretaric : aphezac, contsecrazionean, ez du erraiten : hau da Jesusen gorphutza, hau da Jesusen odola; bainan bai : hau da nere gorphutza, hau da nere odola.

*
* *

Bainan diozu mezaco sacrificioa, nahiz gurutzeco sacrificio ber-bera den, bizkitartean bertzela egina dela?

Bai, hala da : gurutzean, bere odola ichuriz, Jesus egiazki hil zen; aldarean aldiz gurutzeco heriotzea, orduan ichuri odola, diozca bere Aita zerucoari escaintzen.

Gurutzean bezala, aldarean ere Jesus Jaunac graziac merezitzen dauzkigu?

Ez; bainan, mezan eta mezaren bidez, emaiten dauzkigu gurutzean merezitu graziac.

§ II. *Nola behar den meza entzun.*

Gauza saindua eta baliosa da beraz mezaco sacrificioa?

Bai, ditaken sainduena eta baliosena; ez lurrean, ez zeruan, ez da sainduagoric eta baliosagoric.

Zergatic?

Zeren meza baita Jesusen gorphutza-
ren eta odolaren sacrificioa, oroz gaineco
sacrificioa.

Ez da beraz meza balio duen othoitzic
eta debozioneric?

Ez, hurbiltzeco ere; deusec ez du, nola
mezac, Jaincoa ohoratzen; deusec ez dio
arimari hain nasaiki Jaincoaren laguntza
ardiesten.

Beraz, giristinoec lehia handia behar
lukete mezan aurkitzeco?

Bai, segurki, giristinoec lehia handia
behar lukete mezan aurkhitzeco, meza
sainduaren maiz eta ardura entzuteco.

*
* *

Nola egon behar da mezan?

Gurutzearen aintzinean egonen ginen bezala; ezen sacrificio bera da.

Nola egonen ginen gurutzearen aintzinean?

Hasteco, campoz, errespetu handienarekin.

Eta barnez?

Barnez, amodioa eta urrikia bihotzean.

Zergatic amodioa?

Zeren Jesus Jauna guretzat amodioz hil baita, eta amodioari amodioa zor baitzaio.

Zergatic urrikia?

Zeren gure bekhatuec baitute Jesus Jauna gurutzean itzatu eta hilarazi.

*
* *

Norentzat emaiten da meza saindua, bizientzat ala hilentzat?

Meza saindua eman ditake, bai bizientzat, bai hilentzat.

 PENITENTZIACO SACRAMENDUA

§ I. *Zer den.*

Zer da Penitentziaco sacramendua?

Hura da : bathaiatuz geroz egin bekhatuac barkhatzen dituen sacramendua.

Noiz errezebitzen da Penitentziaco sacramendua?

Cofesatzen denean.

Zer da cofesatzea?

Cofesatzea da : bere bekhatuen aphez bati aithortzea, barkhamenduaren izaiteco (*).

Edo zoin aphezec bekhatuac barkha detzazke?

Hiltzera dohatzineri, bai; bertzenaz, aphezac behar du aphezpicuaren baia.

Nola deitzen da aphezac emaiten duen barkhamendua?

Deitzen da : absoluzioea.

(*) Bekhatuen *cofesatzea*, *acusatzea*, *declaratzea*, *erraita*, *aithortzea*, horiec guziaz bat dire.



Zer behar da absoluzionearen ongi errezebitzeco, edo, batetara dohana, cofesio on baten egiteco?

Hiru gauza; bekhatuac erran, hetaz urrikitu, eta penitentzia egiteco chedea izan.

Hola cofesatzeco, zer egin behar da lehenic?

Othoitz khartsu batez Jaincoari galdegin bekhatuen ezagutzeco, erraiteco, eta hetaz urrikitzeco grazia (*).

§ II. *Contzientziaco etsamina.*

Bekhatuen erraiteco zer behar da?
Behar dire ezagutu.

Eta ezagutzeco?

Ezagutzeco, behar dire bere baitan bilhatu.

Nola bilhatzen dire?

(*) Chede hortarat on litake arrosoriotic hamar-reco bat edo bertze erraitea.

Hoberena da, manamenduz manamendu icustea, bacotchari buruz zer huts egin den.

Eta nola icusico da hori?

Ahalaz orhoituz non, norekin eta zertan ibili den; zer den egin, egiteco utzi, erran, gutiziatu edo gogoan erabili.

Artharekin egin behar da bekhatuen bilhatze hori?

Bai artharekin egin behar da, eta ez achaletic eta arinki.

Nola deitzen da bekhatuen bilhatze hori?

Deitzen da : *contzientziaco etsamina*.

Zer da hoberenic cofesioco etsamina ongi eta errechki egiteco?

Arrats guziez contzientziaren etsaminatzea.

§ III. *Erran behar diren bekhatuac.*

Zoin dire, cofesio on baten egiteco, baitezpada erran behar diren bekhatuac?

Cofesio on baten egiteco, baitezpada

erran behar dire : segurki ariman diren bekhatu mortal guziac.

Noiz da bekhatu mortal bat segurki ariman?

Segur denean egin dela, eta segur ez dela cofesatu.

Eta diozu bekhatu mortal segur guziac baitezpada erran behar direla?

Bai, guziac erran behar dire; eta bat baxharra bere nahitarat uzten balitz, cofesio tzarra litake.

*
* *

Aski da bekhatu mortal guziac betan emanaz, chehetasun gehiago gabe erraita : Egin dut hunembertze bekhatu mortal?

Ez, erran behar da zoin bekhatu mortal egin den, eta bacotchetic zembat.

*
* *

Manamendu bat baino gehiago hauts ditake betan?

Bai segurki : hala nola eliza batean

ebasten duenac bi manamendu hausten baititu : zazpigarrena eta lehena.

Bada orduan manamendu hausten den bezembat bekhatu?

Bai, bada manamendu hausten den bezembat bekhatu.

Eta behar dire guziac cofesioan erran? Mortalac direnean, bai, guziac.

Beraz, achtico ebascoarentzat, handia balin-bazen, ez zen askico erraitea : Ebasco handi bat egin dut?

Ez, ez zen askico ; erran beharco zen : ebasco handi bat egin dut eliza batean.

*
* *

Bekhatu mortal bat ahantziric uzten bada erraiteco, zer cofesio egiten da?

Cofesio ona, eta bekhatu hura ere barkhatua da bertzeekin ; bainan gero, orhoitzen delaric, erran beharco da.

§ IV. *Erraitea on diren bekhatuac.*

Bekhatu mortal segurez campo, bada

bertze bekhatuic baitezpada cofesioan erran beharric?

Ez, bekhatu mortal segurez campo, ez da bertze bekhatuic baitezpada cofesioan erran beharric.

Beraz, bertze bekhatu guziac nahitarat utziric ere, cofesioa ona litake?

Bai, bertze bekhatu guziac nahitarat utziric ere, cofesioa ona litake (*).

On da bizkitartean bertze bekhatuic ere erraitea?

Bai, on da eta arras on.

Zoin dire erraitea on diren bekhatuac?

Dudazco bekhatu mortalac; bekhatu benialac, eta jadanic cofesatu bekhatuac.

*
* *

Noiz da bekhatu mortal bat dudazcoa?

Segur ez denean, edo egin dela, edo mortala zela, edo cofesatu dela.

(*) Erran gabe doha, bekhatu mortalac ez balinbada, behar dela bertze zerbeit bekhatu cofesatu, nahi bada absuluzioea izan. Bertzenaz, zeri buruz eman litake absuluzioea?

Halaco bekhatuac nola erraiten dire :
dudazco bezala, ala segur bezala?

Dudazco bezala.

*
* *

Zergatic da on bekhatu benialen cofe-
satzea?

Errechkiago eta hobeki barkhatuac
baitire; eta aphezac argitzen baitu arima,
eta sacramenduac hazcartzen.

Zergatic diozu cofesioan bekhatu be-
nialac barkhatuac direla errechkiago
eta hobeki?

Zeren, cofesiotic campo ere, ardiets
baititake bekhatu benialen barkhamen-
dua.

Nola bada ardiets ditake?

Asco gisaz, nola : ur benedicatuarekin
zeinatuz, *Gure Aita* erranez, eta bereziki,
caritatezco actac eginez.

*
* *

Jadanic cofesatu bekhatuac nola errai-
ten dire : cheheki, bakharca, ala guziac
betan?

Guziac betan, erranez : *acusatzen ditut nere bizi guzico bekhatuac.*

Eta, noiz erraiten da hori : cofesioaren hastean, erditan, edo acabantzan?

Nahi denean ; bainan maizenic bertze bekhatuac erran ondoan.

Norentzat da bereziki on lehengo bekhatuen hola erraitea?

Azken cofesioaz geroz bekhatu ttikiric baizic ez dutenentzat.

Zergatic?

Ascotan errechago baita lehengo zerbeit bekhatuz urrikitzea, ezen-ez bekhatu ttiki hetaz ; eta hala absoluzione on bat segurutzen baita.

§ V. *Urrikia.*

Zer da bekhatuaz urrikitzea?

Bekhatuaz urrikitzea da : bekhatuaren higuintzea edo hastiatzea.

Zembat gauza sartzen dire urrikian?

Bi gauza : egin bekhatuaz damua (*), eta berritz ez egiteco chedea.

(*) Atsegabea.

Izan ditake egin bekhatuaz egiazco damuric, berritz ez egiteco chederic gabe?

Ez : gauza bat eginic egiazki damu bada, ez da nahico gauza hura berritz egin.

*
* *

Zoin bekhatuen barkhamenduarentzat behar da urrikia?

Guzientzat, ala handientzat, ala ttikientzat.

Zer! urrikiric gabe, ez ditake secular bekhatu baten barkhamendua izan?

Ez, urrikiric gabe, ez ditake secular bekhatu baten barkhamendua izan.

Eta bizkitartean, cofesatu gabe izan ditake batzuetan barkhamendua (*)?

Cofesatu gabe bai; bainan urrikitu gabe, ez, secular.

Beraz, behar den urrikia ez denean, absoluzioea gaizki errezebitzen da?

(*) Hala nola eri batec ezagutza galtzen duenean, apheza ethorri baino lehen.

Bai, behar den urrikia ez denean, absoluzioea gaizki errezebitzen da.

*
* *

Nolaco urrikia behar da cofesio on baten egiteco?

Urrikia behar da : 1^{ic} zin-zinezcoa, 2^{ic} Jaincoaren ganicacoa.

§ VI. *Urriki zin-zinezcoa*

Noiz da urrikia zin-zinezcoa?

Bihotzetic hastiatzen direnean bekhatu mortal guziac bederen, secular gehiago ez egiteco chedearekin.

Beraz, bekhatuac ez badire hitzez eta ezpainez baizic hastiatzen, urrikia ez da zin-zinezcoa?

Ez, ez da hala; ezpainetan baizic ez den urrikia gezurrezco urrikia da.

Beraz bekhatu mortal bakhar bat oraino maite denean, utzi nahi ez denean, urrikia ez da zin-zinezkoa?

Ez, ez da hala; eta, ez bekhatu hura, ez eta ere, bertze bihiric, ez da barkhatua.

Beraz, zembait demboraz baizic bekhatua utzi nahi ez denean, urrikia ez da zin-zinezcoa?

Ez, ez da hala : zembait demboraren buruan ez da bekhatua lehen baino hai-zuago.

Bainan, bihotzetic delaric bekhatuaren uzteco chedea, beldur balin-bada bizki-tartean herritz ere erorico dela, orduan urrikia zin-zinezcoa da?

Bai, beldur horren gatic, hala da, egiazki bihotzetic balin-bada bekhatuaren uzteco chedea.

*
* *

Izan ditake bekhatuaren uzteco chede zin-zinezcoric, ez balin-bada ocasione hurbilen uzteco chedea?

Ez, bekhatuzco ocasione hurbilen uzteco chederic gabe, ez ditake izan bekhatuen uzteco chede zin-zinezcoric.

Zer da bekhatuzco ocasione hurbila?

Norbeitekin egoiteac, norapeit gateac, hau edo hura egiteac, maiz bekhatuan

erorrazazten badu, hura da ocasioe hur-bila.

Eta diozu ez dela bekhatuen urriki zin-zinezcoric, ez badire utzi nahi ocasioe hurbilac?

Bai, hala diot; buzti nahi ez dena, ez da urean sartzen.

Beraz, ocasioea utzi nahi ez duenac ez du absoluzioea merezi?

Ez, ocasioea utzi nahi ez duenac ez du absoluzioea merezi.

Bainan, ez baditake utz? Nahi-eta-ez han egon behar bada?

Hori bertzeric da; orduan, cofesora-ren erranac egin nahi balin-badire, bar-khamendua ardietsico da.

§ VII. *Urriki Jaincoaren ganicacoa.*

Zer erran nahi du, urrikiac izan behar duela Jaincoaren ganicacoa?

Erran nahi du, ez dezakegula egiazco urrikiac izan gure baitaric, graziaren laguntza gabe.

Urrikitzeco grazia behar zaio beraz Jaincoari galdetu?

Bai, jadanic erran den bezala, urrikitzeco grazia behar zaio khartsuki Jaincoari galdetu.



Bainan, urrikitzeco, aski da grazia horren galdetzea?

Ez, ez da aski.

Zer behar da bada bertzeric?

Bacotchac behar du ahalaz urrikia bere baitan sorrarazi.

Eta urrikiaren bere baitan sorrarazteco, zer egin behar da?

Orhoitu eta gogoan erabili, bekhatua zoin gauza ahalkegarria den, eta bereziki zoin gauza tzarra.

Norentzat da bekhatua gauza tzarra? Jaincoarentzat eta gure arimarentzat.

Jaincoarentzat nola da gauza tzarra? Jaincoa gutiesten (*) eta laidoztatzen

(1) Erran nahi da : *gutitzat hartzen.*

duelacotz; Jesus gure Jaincoa jo, pairarazi, gurutzean itzatu eta hilarazi duela-cotz.

Eta guretzat nola da bekhatua gauza tzarra?

Grazia eta zerua galarazten dauzkigulacotz, ifernua edo purgatorioa merezitzen (*).

(*) Hainitz giristinoec uste dute, Jaincoac ariman urrikia sorrarazten duela larrean *honddoac* bezala, batere gizonaren laguntzaric eta lanic gabe. *Ez da hala.*

Maizenic bederen, ariman urrikia heldu da, ez larrean *honddoac* bezala, bainan bai alhorrean *artoa* bezala. — Jaincoac ez badu laguntzen, Jaincoac ez badio behar den iguzkia eta uria emaiten, laborariac, zer-nahi eginican ere, ez du artoric alhorrean bilduco. Halaber, Jaincoaren grazia gabe, giristinoac ez dezake izan bere bekhatuen egiazco urrikeric; eta horra zergatic urriki hori behar zaion Jaincoari othoitzaz galdetu. — Bainan, Jaincoac behar den iguzkia eta uria emana-gatic, laborariac ez badu berac ere zerbeit egiten, ez badu lurra iraultzen, aphaintzen, ez badu hazia eraiten, ez du artoric izanen; artoa ez da ethorrico Jaincoaren laguntzari eta laboriaren lanari esker baizic. Halaber, maizenic bederen, ez da aski, bekhatuen urrikiaren izaiteco, Jaincoari galdetzea, othoitz egitea : gutaric baco-tchac bertze zerbeit egin behar du urrikiaren bere

*
* *

Ez da aski, barkhamenduaren ardies-teco, bekhatuaz urrikitzea gure ohorea edo ontasunac ttikitzen dituelacotz?

Ez, ez da aski; holaco urrikian ez da Jaincoa deusetan ere sartzen; Jaincoac ez dezoke holaco urrikiari barkha.

§ VIII. *Bi egiazco urriki*

Zembat egiazco urriki dire?

Badire bia : ona, eta ezin hobe.

bihotzean sorrarazteco. Eta zer eginen dugu? Zer?.. Orhoituco, gogoan erabilico, zoin gauza tzarra den bekhatua, tzarra Jaincoarentzat, tzarra guretzat. Alainanbada, gauza tzarrac hastiatzen dire, hetaz da urrikitzen..... Bada, ongi ezagutzeco zoin gauza tzarra den bekhatua, *gogoz eta bihotzez gazen GURUTZEAREN AINTZINERA, gazen IFERNURA, PURGATORIO-TARA, ZERURA; gauden han aphur bat* : han icusico dugu, alde batetic, bekhatuac zoin izigarriki pairarazi duen Jesu-Christo gure Jaincoa; bertze aldetic, geroniri zer gaztigu merezitzen eta zer zorion galarrasten dauzkigun; eta, hori icustearekin, batere federic eta adimenduric balin-badugu, egin bekhatuez urrikitan sarturic, hartuco dugu gehiago ez egiteco chede zina.

Ochala urrikia hola bilduric cofesatzen bagine beti! Bertzelaco giristinoric gintazke.

Bertze zer izen dute urriki horiec?

Ona deitzen da : *atrizionea*; eta ezin hobe : *contrizionea*.

Zer da *atrizionea*?

Atrizionea da : bekhatua hastiatzea, *guretzat gauza tzarra delacotz*.

Eta *contrizionea*, zer da?

Contrizionea da : bekhatua hastiatzea, *Jaincoarentzat gauza tzarra delacotz*.

*
* *

Aski da *atrizionea* bekhatuen barkhamenduaren izaiteco?

Absoluzionearekin, bai; absoluzioneric gabe, ez, bederen bekhatu mortalentzat.

Eta *contrizionea* aski da, absoluzioneric gabe ere?

Bai, aski da; *contrizioneac*, izaiten den bezen laster, bekhatuac khentzen ditu arimatic (*).

(*) *Contrizionea* duena bekhatuaz urrikitzen da Jaincoaren amoreagatic; *contrizionean* sartzen da beraz *caritatea*. Eta horra zergatic *contrizioneac*, izaiten den bezen laster, bekhatu mortala khentzen duen arimatic.

Behar da bizkitartean bekhatu mortalen cofesatzeco chedea?

Orhoitzen bada, bai; bertzalde, chede hori sartzen da beti contrizionean.

Nola hori?

Zeren contrizionea duenac baitu Jaincoac manatu guzien egiteco chedea: bada, Jaincoac manatzen du bekhatu mortal guzien cofesatzea.

On da beraz maiz bere baitan piztea contrizionea?

Bai, on da eta arras on (*).

§ IX. *Penitentzia.*

Zer da penitentzia?

Penitentzia da: cofesatzen denari aphezac manatzen dion zerbeit, edo othoitz, edo obra on, edo bertze.

(*) Huna nola egin ditaken contrizionezco acta: Ene Jaincoa, handizki damu dut zu ofentsaturic, zeren guziz ona eta guziz maitagarria zaren, eta zeren bekhatua hastio duzun. Barkha zadazu Jesu-Christoren merezimenduen berthutez; hartzen dut borondate fermu bat, zure graziarekin batean, zu gehiago ez ofentsatzeco, eta penitentzia egiteco.

Aphezac eman penitentzia egin behar da?

Bai, egin behar da; eta ahalaz, laster. Penitentzia zertaco emaiten du aphezac?

Emaiten du, bai bekhatuaren gaztigitzat, bai bekhatuan berritz erortzetic begiratzeco.

*
* *

Beraz, bekhatu bat cofesioan barkhatua denean, hari zor zaion gaztigua ez da osoki barkhatua?

Osoki, ez; ttikitua choilki; non ez den urriki hainitz bizia.

Aphezac eman penitentzia da bekhatuari zor zaion gaztigu guzia?

Ez; eta horra zergatic, penitentzia hura egin ondoan ere, bertzeric egin behar den, nahi bada zerura chuchen heldu.

*
* *

Beraz penitentzia mundu huntan egi-ten ez duena, ez da chuchen zeruraco?

Ez, ganen da purgatoriotara.

Zer da hobe, mundu huntan ala purgatoriotan penitentzia egitea?

Mundu huntan : ezen, hemengo penitentziac, purgatoriotacoac baino hainitez laburrago eta arinago dire.

Nola egin ditake mundu huntan penitentzia?

Bere nekeac eta nahigabeac eztitasunekin jasanez eta Jaincoari escainiz; haizu diren atseginac ere guziac ez hartuz; obra onac eginez, indulientziac irabaziz.

INDULIENTZIAC

Zer da indulientzia?

Indulientzia da : bekhatu barkhatuari zor zaion gaztiguaren barkhamendua.

Norc emaiten du barkhamendu hori?
Elizac.

Nori emaiten dio Elizac barkhamendu hori?

Merezitzen duenari.

Zer behar da barkhamendu horren merezitzeco, erran nahi da indulientzia baten irabazteco?

Bi gauza : 1^{ric} Elizac hartaracotz manatzen dituenac egin; 2^{ric} graziazco estatuan izan.

Zer manatzen du maizenic Elizac?

Zerbeit othoitz, barura, cofesioa, comunionea, obra onac.

*
* *

Elizac gauza bat baino gehiago manatzen duenean, noiz irabazten da indulientzia?

Gauza hetaric azkena egiten denean.

Aski da beraz orduan izaitea graziazco estatuan?

Bai, aski da orduan izaitea graziazco estatuan.

*
* *

Zembat indulientzia mota dire?

Bia : osoa, eta osoa ez dena.

Zer da indulientzia osoa?

Bekhatuari zor zaion gaztigu guzia barkhatzen duen indulientzia.

Eta osoa ez dena?

Gaztigu haren pharte bat baizic barkhatzen ez duena.

Indulientzia osoa beti osoki irabazten da?

Ez, irabaz ditake indulientzia osotic choilki pharte bat.

Zergatic deitzen da bada osoa?

Zeren Elizac osoa escaintzen baitaucu; guc ez dugu guzia hartzen.

Zer behar da indulientzia osoaren osoki irabazteco?

Izan behar da bekhatu benialic ere batere gabe.



Norentzat irabaz detzazkegu indulientziac?

Irabaz detzazkegu bai guretzat, bai bertzentzat, ala bizientzat, ala hilentzat (*).

Hilentzat irabazi nahi diren indulientzientzat ere, graziazco estatuan izan behar da?

Ascoc ezetz diote; bainan segurago da hala izaitea.

*
* *

Elizac nondic emaiten dauzcu indulientziac?

Jesu-Christoren merezimendu negurri gabecoetaric, eta frango sainduec berentzat behar zutenetic goiti egin dituzten penitentzietaric.

Eta merezimendu hec, penitentzia hec, Elizaren escuco dire?

Bai, hala dire.

ANONTZIOCO SACRAMENDUA

Zer da anontzioa?

(*) Elizac erraiten du zoin indulientzia irabaz ditazken hilentzat.

Anontzioa da : eri gaizki denari, arimaco eta gorphutzeco ona emaiten dion sacramendua.

Noiz da norbeit eri gaizki ?

Bere eritasunetic laster hilen dela beldur izaiteco denean.

Eri gaizki izan behar da beraz anontzioaren errezebitzeco ?

Bai, hala izan behar da.

On da bizkitartean azken hatsetaraino iguricatzea ?

Ez, ez da on, ez eta ere haizu; ahalaz lehenago, hainitz lehenago, behar da anontzioa hartu eta harrarasi.

*
* *

Anontzioac nola emaiten du arimaco ona ?

Bekhatuen ondarrac khenduz, eta asco laguntza emanaz bai gaitzaren eta herioaren ongi hartzeco, bai debruaren urruntzeco.

Anontzioac gorphutzeco osagarria noiz emaiten du?

Arimarentzat on izan behar denean; bainan orduan ere, ez beti.

*
* *

Norc emaiten du anontzio saildua?
Aphezac.

Nola?

Olio benedicatuarekin gantzadura batzu eginez, zembait hitz erraiten dituelaric.

Non egiten dire gantzadurac?

Begietan, beharrietan, sudurrean, ezpainenetan, escuetan eta oinetan.

Zer hitz erraiten du aphezac?

Hitz hauc : *Gantzadura saildu hunen bidez, Jaincoac barkha dietzatzula-begiz-beharriz-sudurrez-ezpainez-escuz-oinez-egin bekhatu guziac.*

Nola hartu behar da anontzioa?

Sinheste bizi eta fidantzia handi batekin.

ORDENACO SACRAMENDUA

Zer da ordena?

Ordena da : sacramendu bat, aphezac egiten dituen, eta emaiten diotena beren egimbiden ongi bethetzeco grazia.

Norc emaiten du sacramendu hori?
Aphezpicuac.

*
* *

Zoin dire aphezen egimbideac?

Aphezec badituzte bi egimbide : Jaincoaren ohoratzea, eta arimen salbatzea.

Aphezec nola dute Jaincoa ohoratzen?

Ohoratzen dute bereziki meza saindua emanaz, eta *offizioa* erranez.

Zer da offizioa?

Offizioa deitzen dire : aphezec egun oroz, giristino guzien izenean, egiten dituzten othoitz eder luze batzu.

Eta arimac, nola salbatzen dituzte aphezec?

Jaincoaren hitza adiaraziz, sacramen-

duac emanetz, eta, bai mezan, bai offizioan, heientzat othoitz eginez.

*
* *

Gauza handia da aphezetasuna?

Bai, munduan den handiena : apheza Jaincoaren gizona da, eta Jaincoac eman diozca harritzeco ahalac.

Zoin dire aphezaren ahalic harrigarrienac?

Gorphutz-sainduaren egiteco, eta bekhatuen barkhatzeco ahala.

Gauza ona da aphezetasuna?

Bai, munduan den hoberena : aphezen escuac graziazco ithurri ezin agortu batzu dire.

Aphezac behar dire beraz ohoratu eta maitatu?

Bai, aphezac behar dire ohoratu eta maitatu.

*
* *

Nor nahi aphez egin ditake?

Bai, Jaincoac deitzen duelaric, eta behar diren urhatsac atchikitzen ditue-laric.

Haur batec aphezteco gutizia duenean, zer egin behar dute burhasoec?

Utzi, eta ahalaz lagundu; bertzenaz gaizki egin lezakete.

Zergatic?

Zeren Jaincoac norbeiti erraiten dioe-nean : aphez nahi zaitut, nihorc ez baitu zuzenic erraiteco : nic ez zaitut aphez nahi (*).

EZCONTZACO SACRAMENDUA

Zer da ezcontza?

Ezcontza da : gizonaren eta emaztea-ren arteco batasuna saindutzen duen sa-cramendua.

Sacramendu horrec zer grazia emaiten diote senhar-emazteri?

(1) Ez dute zuzen gehiago, beren haurrac comen-tuan sartzerat utzi nahi ez dituzten burhasoec.

Beren egimbiden ongi bethetzeco behar dituzten grazia guziac.

Zoin dire senhar-emazten egimbideac?
Elgarrekin bizitzea, elgar maitatzea, elgar laguntzea; beren haurren giristinoki altchatzea.

*
* *

Zembat demborarentzat ezcontzen da?
Beticotz.

Beraz, gizonen legeg ez dezakete ezcontza hauts?

Ez, nihorc, ez eta Aita Sainduac ere, ez dezake hauts giristinoen arteco ezcontza.

Eta senhar-emastec berec?

Senhar-emaztec berec er, ez.

*
* *

Noren aintzinean escontzen da?

Herrico erretoraren, edo haren baia duen bertze aphez baten aintzinean.

Ez da beraz herrico-etchean, hauz-aphezaren aintzinean ezcontzen?

Ez eta hasten ere : herrico etchetic ateratzean, ez da batere sartzean baino ez-conduago izaiten.

*
* *

Ezcontzeco abiaduraric denean, zer egin behar da?

Jaincoari khartsuki galdetu garbi egoiteco grazia; eta hoberena gero, burhasoen eta cofesoraren mintzatzea, eta hec erranac egitea.

ABENDOA

Abendoa deitzen dire : *Eguberri aintzineco lau asteac*. Nola munduac lau mila urthez Salbatzailea iguricatu baitu ; nola lege zaharreco sainduac othoitzic khartsuenez auhenca galdegin baitute ; halaber giristinoec, lau aste horietan, beren urhatsac hartu behar dituzte, Jesus haurrari, sortu den egunean, begitarte onaren egiteco, eta emaiteco beren bihoztetan Salbatzaileari hambat laket zaion egoitza. Hartaracotz, jarraik bite othoitzari, penitentziari, eta Elizaco offizioeri.

GARIZUMA

Garizuma da : *berrogoi eguneco barur bat*, Apostoluec ezarria, eta geroztic beti Elizac manatzen duena. Berrogoi egun hec dire Bazco aintzineco berrogoi egunac, igandeac berech. Berrogoi egunez barur egiten da, Jesus Jaunaren berrogoi

eguneco baruraren ohoratzeco. Bertzalde barur horiec, jaidura tzarrac zapatuz, giristinoac ekhartzen dituzte Jesu-Christoren Pasioneco eta Fizteco egun handi eta sainduen behar den bezala iragaitera. Seculan baino othoitz, eta penitentzia, eta obra on gehiago egin behar litake Garizuman.

ELIZACO PHESTA-BURU HANDIENAC

JESU-CHRISTO GURE JAUNAREN PHESTAC

Eguberri. (Abendoaren 25^{ean.}) — Salbatzailea sortzen da Bethlemen.

Urthe-berri. (Urtharrilaren 1^{ean.}) — Salbatzailea izendatua da *Jesus*.

Trufania. (Urtharrilaren 6^{ean.}) — *Errege Magoec* adoratzen dute Jesus-Haurra.

Ortzegun saindu. — Jesus Jaunac Gorphutz-Saindua egiten du, eta gauza beraren egiteco ahala aphezari emaiten.

Ortzirale saindu. — Jesus Jauna gurutzean hiltzen da.

Bazco. — Jesus Jauna pizten da.

Salbatore. (Bazcotic berrogoigarren egunean). — Jesus Jauna zerurat igaiten da.

Phesta-berri. — Sacramendu sainduaren handizki ohoratzeco phesta.

Bihotz Sacratua. (Phesta-berri bederatzizurrunean ortziraLEAN.) — Egun hartan bereziki ohoratzen da Jesusen bihotz adoragarri eta amultsua.

Mendecoste. (Salbatoretic hamargarren egunean). — Egun hartan Izpiritu Saindua jautsi zen apostoluen gainera.

Trinitate. (Mendecoste ondoco igandean.) — Trinitate Sainduaren ohoratzeco eguna.

ANDRE DENA MARIAREN PHESTAC

Abendoaren 8^{an}. — Maria contzebitua da bekhatuic gabe.

Buruilaren 8^{an}. — Maria Saindua sortzen da.

Martchoaren 25^{ean}. — Gabriel aingeruac Mariari ekhartzen dio Jaincoaren ama izanen delaco berria; Jaincoaren Semea Mariaren erraietan gizon egiten da.

Abostuaren 15^{ean}. — Maria Saindua, gorphutz eta arima, zerurat altchatzen dute aingeruec.

San Josep. (Martchoaren 19^{an}.) — Egun hartan hil zen san Josep Jesusen eta Mariaren escuetan.

Jon Doni Joani. (Erearoaren 24^{ean}.) — Jondoni Joani-Batichtaren sor-eguna.

Jon Doni Petri. (Erearoaren 29^{an}.) — Egun hartan Petri eta Paulo apostoluec beren bizia eman zuten Jesu-Christorentzat.

Omia saindu. (Hazilaren 1^{ean}.) — Saindu guzien phesta.

ELIZAREN CHEDEAC

Elizaren chedea da :

Martchoan : ohora dezagun bereziki san Josep;

Maiatzean : Andre dena Maria;

Erearoan : Jesusen Bihotz-Sacratua;

Urrian : Jarraik gaiten bereziki Arro-sarioari ;

Hazilean : Othoitz egin dezagun bereziki purgatoriotaco arimentzat.

Laudatua izan bedi Jesu-Christo Gure Jauna!

N. 68880

SAN FRANXESEN

HIRURGARREN ORDENACO

ERREGELA

MUNDUCO PRESUNENTZAT



BAYONAN

Imprimatua LASSERRE, Jaun Aphezpicuaren
liburu egileaz eta saltzaileaz

—
1887

Imprimatur :


INCHAUSPE, vic. gen.

IRACURTZAILEARI

Ohartu gare, San Franxes Patriarcaren Hirurgarren Ordenac munduan dagocineri ematen dioten abantail eta salbamenduco errechtasun bereciez baliatcen edo baliatceco gogoan direnec, guticia handi bat luketela Aita Saindu Leon XIII^{enue}, hekien fagoretan egin duen Erregela berria Euscararat, izan dadien itzulia. Gogotic Haurride maiteentzat hartu dugu lan hori. Oraico ez diotegu escaintcen Erregela bera beicie, cembeit esplicacione labur beharrenekin. Gure chedea da, Jainco onac eta San Franxesec lagunduz, gerochago ageraraztea Escu-liburu bat Ordena eta Erregela saindu hori oraino gehiago maitaracico duena. Gure Euscaldunetarie hainitz-eta-hainitec agian, icusiz cer aberastasun, cer laguntza duketen escuetan, gogo onez segitu nahico dute salbatuco dituen Erregela hau. Liburutto hunen escaintzailearentzat ere erran nahico dute noician behin beren oficioic bederen *Agur Maria* baten amoina. Esperantza horiekin hasterat goaci.

Oxallaren 25^{an}, San Mathias Apostoluaren bestan.

Liburutto huntaco gauza gehienac hainitz behatcen dire Giristino gucieri, Tercier izateco zoriona ez duteneri ere.



SAN FRANXES ASISACOAC

MUNDUAN DAGOCINENTZAT EGIN DUEN

HIRURGARREN ORDENAZ

EDO TERCIERGOAZ

CEMBEIT ESPLICACIONE LABUR

I

Cembeit hitz ordena hunen ichtorioaz

Duela sei ehun eta berrogoi-ta hamar bat urthe, San Franxes Asisacoac, soraraci ondoan bi Ordena handi, Comentuetan Jaincoari osokiago conxecraturic bici nahico cirenentzat, bat gizonentzat, bertcea emaztekientzat, egin zuen hirurgarren Ordena bat munduan egonen cirenpresunentzat : deitzen da TERCIERREN ORDENA. Aita Saindu hainitcec, eta azkenic Pio IX^{ac} berriki hil den Aita Sainduac, oraino berrikiago orai hain lorioski Erromaco Alki Sainduan jarria dagonac, Leon XIII^{ac}, goraki onhartu eta errecomendatu dute Ordena hori, pribilejoric handiencz aberasten dutelarie, Asco jende herrunca eta estatu gucietaco, sartu izan dire *Terciergoan*, asco Aita Saindu ere ba; Pio IX^a *Tercier* cen : demborac ditugure oraico Aita Saindu loriosa ere *Tercier* dela.

Haurridegoa hau ez da choilki confraria ez eta choilki Congregacione bat, bainan Benoa XIII^{en} arabera *Ordena egiazco bat, baxharra bere gisan*. Eta halaber, Ordena guciec bezala, hunec ere baditu bere Nobiciata, edo Frogantzaco dembora, bere Profesionea edo huntan arras cerratcea, bere Arropa, bere Oficioa, bere Erregela Elizaz examinatua eta solanelki onexia, bere Aintcindari bereciac eta Erroman bere Ienerala.

Gaizki handia da, dio Aita Saindu Gregorio IX^{nac}, Ordena hunen contra mintzatcea, hunen criticatcea..... huntan sartcetic norbeiten gibelatcea eta urruntaraztea.

II

Leon XIII^{nac} Gure Aita Sainduac cer dion Terciergoa huntaz

1882^{an}, Burullaren 47^{an}, Leon XIII^{nac} diote mundu gucico Artchaphezpicu eta Aphezpicueri egorri letra bat. Letra hartan gure Aita Saindu loriosac iracusterat ematen du combat desiratcen luken, jende hainitz sar dadin Tercieren Ordenan eta ethorkizunecotz cer ongi igurikitcen duen Haurridegoa huntaric. Jendea hobekiago hertchatceco Ordena salbagarri hortarat, eta sartcen direnec Erregela ahalaz den bezala, ahal becin dispenxa gutiekin atchic dezaten, Aita Sainduac nahi izan

du Erregela, oraico bici moldearekin antolatu. Indulientciez orobat, nola duda batzuec demborarekin altchatu baitciren, garbiki erran izan du cer indulientcia irabacico ciren, cer fagore eta pribilejoz Tercierac aberastuac izanen ciren.

Huna Leon XIII^{na}, Artchapezpicu, Aphezpicucri eta fededun gucieri, berritz 1883^{an}, maihatzaren 30^{an}, adiarazten cituen azken hitcetarie : « Ethorkizuneco ona, Jaincoaren gloria, debocionea eta berthuteen praticatceco kharra, emendatcen icustea handizki dugu desiratcen. Hortaracotz, Letra hautaz, gure Autoritate Apostolicoaren indarrez, berritcen dugu eta fincatcen, munduan egon behar direnentzat, San Franxesen Hirurgarren Ordena. Nihorc ez dezala hargatic uste izan deus khen tcen edo mendratcen dugula Ordena hortaco funxetic beretic : contrarat, bere osotasunean, deus gambioric gabe baitezpada nahi dugu bere funxa beira dezan. Arrozoin hoitaz kentcen ditugu beraz orai arte Alki Saindu huntuaz emanac ciren indulientcia eta pribilejo guciac ; gure nahia da eta manua, orai danic, Tercier guciac goza ditecen Indulientcien Aurkitegian erraterat goacin barcamenez eta pribilejoez, eta bakharric hetaz. »

SAN FRANXESEN
HIRURGARREN ORDENACO
ERREGELA
MUNDUCO PRESUNENTZAT

I^{en} CAPITULUA

SARTCEAZ, FROGATZAZ, PROFESIONEAZ

§ 1. Ez diteke nihor *sar* Hirurgarren Ordenean hamalau urtheac beteac izan gabe; ez eta bicitce eta aztura onac ez dituen bat; unionearen adiehkide, fede catolicoaren atchikitzaile leial, Eliza Erromanoari eta Sainduari osoki sumetitua dela ezagutua ez den bat.

§ 2. Emazte esconduac ez ditezke errecebi senarraren ichilie eta harren baimenarekin beicie; non cofesorac ez duen, casu batzuetan, bertcela jujateen.

§ 3. Hirurgarren Ordenaco membroec, garraiatuco dute usaiaco *escapulario* edo *abitu* ttikia eta *corda*: ez lukete bertcela zucenic Ordena hortaco pribilejo eta ontasunetan.

§ 4. Hirurgarren edo Tercieren Ordenan sartuco direnee e ginen dute urthe baten *nobiciata*, hori da *frogantza*; gero deitcen dituztenean,

ohi den bezala, *profesionerat*, hitz emanen dute Jaincoaren manamenduac begiratuco dituztela, Elizari obedituco diotela, eta beren profesionearen, erran nahi Erregelaren contra cerbeit hutsetan erortcen badire, errana izanzen zaioten satisfacionea eginen dutela.

II^o CAPITULUA

BICITCECO MANERAZ

§ 1. Tercierec beren *beztitceco manerian* bazterrerat utcico dituzte urgulluzco intencionez mundutarrec egiten dituztenac, eta begiratuco, bacotchac bere conlicionean, modestia sainduaren erregelac.

§ 2. Atzaritasun handienarekin *urrundu beharco dire bala edo dantzetaric, comedia lanjerosetaric eta bilcura libertinetaric.*

§ 3. *Jan-edanetan* maitatuco dute arruntasuna eta geldituco dire izarian : deboiki eta eskeronezco sentimenduekin Jaincoa othoiztuco dute apairuen aintcinean eta ondoan.

§ 4. *Barur* eginen dute Mariaren bekhatuic gabe Concebicioneco besta bezperan, eta San Franxes Patriarcaren besta bezperan. Tercieren leheneco Erregela zaharrac ematen duena segituz, nahi badute, ortciralez barur eta asteazkenez mehe egin, hainitz ditezke laudagarri.

§ 5. *Ilhabete* bacotchian lucenaz beren be-

khatuac *cofesatuco* dituzte; ilhabete guciez bederen *mahain saindurat* hurbilduco dire.

§ 6. Tercier, Ordena *sacratuetaco officioa* egun guciez erraten dutenec, ez dute pondu hunen gainean bertce egitecoric; bainan edo Elizaco officioa edo Ama Birjinaren officio tti-
kia erraten ez duten guciec, erran beharco dituzte egun guciez *hamabi Pater, Ave, Gloria*, ez badire horiec ecin erranezco giza eri.

§ 7. *Testamenta* edo *ordeinua* egin dezaketen guciec egin behar dute dembora deino, luzatu gabe.

§ 8. *Exemplu ona* eman dezatela Tercierec beren *familian*, debocionezco praticac eta obra onac besarcatur. Ez dute beren etchetan sartcerat utcico bertutea colpa dezaken liburu eta gacetaric, eta beren menecoac gibelatuco dituzte horrelaco iracurtcetaric (1).

§ 9. Artharekin atchikico dute elkharren arteco eta guciekilaco *unionea* caritatea, batasuna. Egin ahalaz baketuco dituzte aharra eta hasarregoa guciac.

§ 10. *Cinic* ez dezatela secula egin, beharrez

(1) Hemen esplicacione bat : ez dute ere beren etchetan onexico bertutea colpa dezaketen lanjer, josteta, bilcura, comberxacione edo bertce holaco; hortie gauaz eta egunaz atzartasun handienarekin beren menecoac begiratu behar dituzte horrelaco gaucetaric; hartuz serioski hortaco behar diren bideric segurenac.

beicic. Ez dute elhe desonestic erranen, ez eta trufa comeni ez direnic. Arraxean, contcien-
cia *examinatuco* dute holaco huxetan erori ote
diren, eta hobendun causitcen badire urrikitan
sarturic egin dezatela hobeki.

§ 11. Errechki ahal badute, entzunen dute
egun guciez *Meza saindua*. Aitcindariac mar-
catu ilhabeteco *biltzarretan* aurkituco dire.

§ 12. Bacotchac bere ahalaren arabera ema-
nez cerbeit diru, eginen da *molxa* bat. Haur-
ride errumesenen laguntcepo guciz eritasune-
tan, edo Elizaco ohore eta beharrentzat.

§ 13. Minichtroac joanen dire Haurride *erien*
bisitatcerat, edo norbeit egorrico dute carita-
teuco obra hori betheco duena. Eria lanje-
rian denean emanen diozcate behar diren
abertimendu eta conxeiluac, dembora deino
har detzan azken sacramenduac.

§ 14. Herrico eta han gertatuco diren Ter-
cier guciac causituco dire Haurride hilaren
ehorzteco oficioan; hilaren arimaren socorri-
tceco erranen dute Patriarea San Domingoc
iracutsi Arrosarioaren herena, bortz hamar-
reco. Aphecec Mezan, eta bertce Tercierec
ahalaz Comunione sainduan, othoitz eginen
dute joan Haurridea sar dadin bake Eterna-
lean.

III. CAPITULUA

CARGUEZ, BISITAZ ETA ERREGELAZ

§ 1. *Cargudunac* hautatuco dire Tercieren bilcuran; cargua atchikico dute hirur urthez. Nihore ez du arrazoin funxezcoric gabe errefusatu behar, ez eta bethe bere cargua nagiki.

§ 2. Erregela ungi begiratu ote den, errencurarekin jakin behar du *Bisitatzaileac*; hortacotz Haurridegoac bisita detzala urthean behin ahalaz, eta behar bada maizago; bilcura jeneral baterat deituco ditu Minichtroac eta Haurrideac, eta hauc aurkitu beharco dire bilcura hartan. *Bisitatzaileac* ematen badio Tercier bati abertimendu edo manu edo punimendu salbagarri bat, hobenduna humilki sumetituco da, eta onhartuco du penitencia.

§ 3. *Bisitatzaileac* hautatuco dire Franciscanoen Lehen-Ordenean edo Fraiden Hirurgarren Ordenean, *Guardianoeri* galdeginez nor icendatu behar den. Fraide ez denic ez diteke izan *Bisitatzaile*.

§ 4. Obeditu nahi ez duen eta exemplu gachtoa ematen duen Terciera abertitua izanen da hirur aldiz; ez bada sumetitcen, Ordenatic ezarrico dute campo.

§ 5. Jakin behar da *Erregela* hunen contraco huxac ez direla bekhatu, non ez doacin Jaincoaren edo Elizaren manamenduen contra.

§ 6. Arrazoin handi eta egiazco batez gibelatua balimbada Tercier bat Erregela huntaco cerbeit pondutaric, dispenxatua izanen da pondu hartaric, eta, zuhurtciarekin bertce cerbeitetarac gambiatueo diote. Franciscanoen Lehen eta Hirugarren Ordenaco aintcindari ordinarioec, bai eta aipatu ditugun Bisitatzaillec badituzte dispenxa horien emateco behar diren podore guciac.

INDULIENTCIEN (1) ETA PRIBILEJOEN **AURKITEGUIA**

I^{en} CAPITULUA

INDULIENTCIA OSOEZ (2)

Hirurgarren Ordenaco guciec cofesaturic eta comuniaturic, irabazten ahalco dute *indulientcia* edo *barcamen osoa* erraterat goacin egun eta condicionetan.

I. Sartceco egunean.

II. Ordena hortan Profesioea eginen duten egunean.

III. Ilhabeteco bilcura edo confarantzan causituco diren egunean, bisitatzuz Eliza edo capera publico bat, eta han cerbeit othoitz eginez Elizaren beharrentzat.

IV. Urriaren 4^{an}, San Frances beren Aitarren besta egunean; Agorrillaren 12^{an}, Santa Clara, Bigarren-Ordenaco amaren besta egunean; agorrillaren 2^{an} Andredena-Maria-Aingueruetacoaren bestan; bertzalde Terciergoa altchatua den Elizari bere icena ematen dion Sainduaren bestan, Eliza hura bisitatzuz eta

(1) Icus 18 plaman, § 1.

(2) Icus 19 plaman, § 2.

han othoitz cerbeit eginez Eliza Ama Sainduaren beharrentzat.

V. *Ilhabetean behin*, bacotchac hautatu egunean, debotki bisitatcen delaric Eliza edo capera publico bat eta hartan othoitz egiten apurto bat Aita Sainduaren chedetarat.

VI. Perfeccionean aintcinatcea gatic *zortci egunez segidan erretreta bat* eginen duten aldi guciez.

VII. Hiltceco orenean, Jesusen icen saindua deituz, ezpainez ez baditeke bederen bihotzez. Fagore bera ardiexico dute, cofesioa eta comunionea ecin eginean, beren bekhatuez balimbadute egiazco urrikia.

VIII. Urthean bi aldiz irabaz dezakete *barcamen edo indulientcia* osoa, *Aita Sainduaren Benedicionea* errecibituz eta othoitz eginez, Aita Sainduaren chedetarat. Condicione bere-tan errecibituco dute oraino indulientcia osoa. *Absolucionea*, erran nahi da *Benedicionea*, emanen zaioten egunetan, huna noiz : 1, Eguber-riz; 2, Bazcoz; 3, Mendecostez; 4, Jesusen Bihotz Sacratuaren bestan; 5, Mariaren bekhatu-ric gabe Concebicioneco bestan; 6, mar-tchoaren 19^{an}, San Josephe Mariaren esposa-ren bestan; 7, burullaren 17^{an}, Aita San Fran-xes dohaxuaren Zauri Miraculluzcoen bestan; 8, agorrillaren 25^{an}, San Luis, Frantciaco erre-ge, hirur-garren Ordenaco Haurriden patroinaren bestan; 9, hacillaren 19^{an}, Santa Elisa-beth Hongriacoaren bestan.

IX. Ilhabetean behin, erraten badituzte bortz *Pater, Ave,* eta *Gloria Patri* Elizaco beharrentzat, eta seigarren *Pater, Ave* eta *Gloria Aita Sainduaren* chedetarat, irabacico dituzte Erromaco Estacioneac eginez, eta debotki Porciuncula, Jerusalemeco Lecu Sainduac, eta Jondoni Jacobe apostoluaren Eliza Compostellen bisitatz, irabazten diren indulientcia guciac (1).

X. Mezaco liburu Erromanoan Estacioneac marcatuac diren egunetan, bisitatz Haurri-degoa ezarria den eliza edo capera bat, eta, han ohi bezala, othoitz eginez Eliza Sainduaren beharrentzat, Tercierac aberastuco dire egun hetan eta templo edo capera hetan, Erromarrec eta atzec Erroman dituzten pribilejo, ontasun hedatu guciez (2).

II^{en} CAPITULUA

BARCAMEN EDO INDULIENTCIA EZ-OSOEZ

Zazpi urtheren eta *zazpi garizumaren* barca-mena (3) izanen dute.

1. Hirurgarren Ordenea diren, edo gizonki edo emazteki guciec, bisitatz Terciergoa al-tchatua den Eliza edo capera bat, eta han othoitz eginez Elizaren beharrentzat, erraterat

(1) Icus 19 plaman, § 3.

(2) Icus 20 plaman, § 5.

(3) Icus 21 plaman, § 6.

goacin egunetan : Burullaren 17^{an} San Franxex Patriarcaren Zauri Miraculluzcoen bestan ; agorrillaren 25^{an}, San Luiz, Frantciaco erregearen ; uztallaren 8^{an}, santa Elisabeth, Portugaleco erreginaren ; hacillaren 19^{an}, santa Elisabeth Hongriacoaren ; eta oxallaren 22^{an}, santa Margarita Cortonacoaren bestan. Bertzalde Ordenaco Ainteindariaren baimenarekin berec hautatuco dituzten bertce hamabi eguncz.

II. *Hirur ehun egunen* barcamena *aldi bacochean* irabaz dezakete, Meza sainduan, Elizaco bertce oficioetan, eta Ordenaco bilcura publico edo particularretan causituco direnean, escale bati atherbea emanen diotenean, hasarregoen baketcen harico direnean, profesione batian aurkituco direnean, sacramendu saindua segituco dutenean, edo segi ez badezakete, czkila aditcearekin erranez behin *Pater* eta *Ave Maria* ; — orobat bortz *Pater*, *Ave* erranen dituztenean Elizaco beharrentzat edo Ordenaco Haurride hilentzat ; ehorzte baterat joanen direnean, bere egimbidetic urrundua cena hartarat eracarrico dutenean ; norbeiti Jaincoaren manamenduac eta bertce Salbatcecotz jakin beharrae iracaxico dituztenean ; edo bertce caritatezco obra holaco cerbeit eginen dutenean.

Indulientcia horiec guciac, izan ditecen osoac edo ez, Tercierec eratchiki detzazkete,

hala nahi badute, Purgatorioco arimei (1)

III^{oa} CAPITULUA

PRIBILEJOEZ

I. Hirurgarren Ordenaco aphecec, edo ceir aldaretan meza saindua eman dezaten, badute berec aldare pribilejatuaren fagorea aste batcotcheco hirur egunez, non ez duten bertce egun batentzat jadanic fagore hori ardiexi.

II. Aphez Tercierec, Ordena hortaco Haurride hilentzat ematen dutenean meza, irabazten dute bethi eta non nahi, aldare pribilejatuco indulientcia (2).

Hobeki comprenitcea gatic cembeit esplicacione Indulientciez

§ 1. *Indulientcia* edo *barcamena* da, Eliza Ama Sainduac bere Amatasunean gure arimei edo gure medioz Purgatoriotan direnei ematen duen *zorren barcamendu bat*, gure aldetic bethetcearekin galdetuac zaizkigun condicioneac. Hemen mintzo garen arimaco zorrac, bekhatuaren zorrac dire. Ez diteke bekhatuaren zorraren barcamena ardiex bekhatuac barcatua ez deino. Cembeit aldiz barcatcen ditu Jaincoac bekhatuaren zor guciac bekha-

(1) Icus 19 plaman, § 4, eta 23 plaman, § 7.

(2) Icus 23 plaman, § 8.

tuarekin batean. Hori gerthatcen zaiote, bekhatuaren damu minaz eta Jaincoaren amodioaz bihotza erdiratua bezala duteneri. Bainan bekhatuen damua aski mina ez dutenac gelditcen dire zordun bekhatua barcatua zaiotelaric. Zordun gelditcen direnen alde dire *indulientciac* edo *barcamenac*.

§ 2. Indulientciac batzuec *osoac* dire, bertceac ez; *osoa* irabazten duenac atheratcen du bere burua, cituen zor gucietaric. Orobat egiten du, bere eta Elizaren emaitzaren aldetic, Purgatorioco arimarentzat, baldin Jaincoac ere bere aldetic eman nahi badio arima hari indulientcia *oso* hura.

§ 3. Autor handiec diote Erromaco, Jerusalemeco, Porcionculaco eta Jondoni Jacobe Compostelleco, badirela *aldibacotchean* hiruetan hogoi eta hamar indulientcia *oso* eta gehiago, eta indulientcia *osoac ez direnac* casic nombre gabe.

§ 4. Cembat indulientcia diren jakin gabe ere, irabaz ditezke. Baitezpadaco condicionea da, *intencionea* hartcea irabaci nahi direla, eta chuchen egitea eman dituenaren bertce erranac. Berri dezagun beraz egun guciez edo nahi dugun becin maiz *intencione* edo *chede* hori. Hainitec huna cer egiten duten : ematen irabazten ahal dituzten guci-guciac Purgatorioco arimei, ezarriz Andredena Mariaren es-cuetan, Ama onac eratchiki detzotela berac

nahico duen bezala; hori egiten badugu ez dugu segur damuric izanen egun batez.

‡ 5. Huna zoin diren Erromaco *Estacioneen egunac eta aberaxtasunac*.

— Ortcegun Sainduz, Bazcoz, Salbatorez eta Eguberriz indulientcia osoa (cofesaturic eta comuniaturic).

— Urthaxez, Trufaniaz, Septuagesimaco, Sexagesimaco, Quinquagesimaco igandez, *hogoi-eta-hamar urtheren eta hogoi-eta-hamar garizumaren* indulientciac.

— Haustez eta Garizumaco 4^on igandean, *hamabortz urtheren eta hamabortz garizumaren* indulientciac.

— Erramuz, *hogoi-eta-bortz urtheren eta hogoi eta-bortz garizumaren*.

— Ortcirale eta Larumbat Sainduz, *hogoi-eta-hamar urtheren eta hogoi-eta-hamar garizumaren*.

— Garizumaco bertce Igande eta egun guciez, *hamar urtheren eta hamar garizumaren*.

— Bazco biharamunetic eta Bazco zahar-rerainocoan egun guciez; aphiñillaren 25^on; San Marco Ebanjelistaren bestan, eta Errogacionetaco hirur egunetan, *hogoi-eta-hamar urtheren eta hogoi-eta-hamar garizumaren*.

— Mendecoste bezperan, *hamar urtheren eta hamar garizumaren*.

— Mendecostez eta zortci hartaco egun gu-

niez, *hogoi-eta-hamar urtheren* eta *hogoi-eta-hamar garizumaren* barcamena.

— Burullaco Garthetaco hirur egunez, eta Abendoco lehen, bigarren eta laugarren Iganlez, *hamar urtheren* eta *hamar garizumaren*.

— Abendoco hirurugarren Igandean, *hamabortz urtheren* eta *hamabortz garizumaren* barcamena.

— Abendoco Garthetaco hirur egunetan *hamar urtheren* eta *hamar garizumarena*.

— Eguberri bezperan, Eguberri gauaz eta Argi-urratceaco mezan, *hamabortz urtheren* eta *hamabortz garizumarena*.

— Abendoaren 26^{an} Jondoni Estebez, 27^{an} Jondoni Joani Ebanjelistaz, 28^{an} Haur Innoententent bestan; *hogoi-eta-hamar urtheren* eta *hogoi-eta-hamar garizumaren* indulientcia.

§ 6. Cembeitec galdetcen dute, ehun egunen, hirur ehun egunen, edo zazpi, *hamar urtheren* eta zazpi, *hamar garizumaren* indulientcia edo barcamena, horiec eta holacoec cer erran nahi duten.

1. — Axeginekin ihardesterat noha galde orri. Erran dugu ardiesten dela cembeit aldiz bekhatuaren zor guciaren barcamendua bekhatuarenarekin batean. Hortaco behar da ere bekhatuaren damuaz eta Jaincoaren amonioáz bihotza erdiratua bezala. Bertceac zordun elditcen dire bekhatua bera barcatua delaric.

2. — Zor hori behar da nombeit pagatu edo

Purgatorioan suaren gaitzarekin, edo hemen cerbeit penitentiarekin. Purgatorioco gaitza harrigarria da; han comprenitcen da cer penitencia zor duen bekhatua egin duenac : hobe da hemen egin dezagun pagatce hori. Horra certaco Cofesorec eman behar duten penitencia bat.

3. — Orai ematen diren penitenciac gutiac dire; leheneco mendeetan garratzaguac eginazten ohi ciren. Exemplan cembeitec argitucoc gaituzte.

Elizan elhestatcen cirenac hamar egunez barurtu behar ciren ur ogi huxean. Aztietan ibiltcen cirenec bortz urthez egin behar zuten penitencia. Dantza batzuetan parte hartcen zutenac hitz eman ez circla gehiago libertimendu halacotan partalier izanen, eta hirur urthez egon behar ziren penitencian.

Bere aita edo ama madaricatcen zuenac berrogoi egunez barur egin behar zuen ur ogihuxean : hec laidoztatcen cituenac, hirur urtheren penitencia; nec jotcen cituenac zazpi urtherena.

Seigarreneco bekhatu batzuec zazpi eta hamar urtheren penitencia zuten; batzuec gehiago.

Gezurrezco Juramentu baten gatic, zazpi urtheren penitencia.

4. — Eliza Ama onac, gutaz urricalduric, Jesu-Christoren bicico eta pasione sainduco

pairamenetan hartcen du guretzat, eta cerbeit othoitz guri erranaraciz edo bertee condicione cerbeit bethearaciz, ematen dauzkigu gure bekhatuen zorren barcamendua.

5. Huna beraz ehun egunen, hirur ehun egunen, edo zazpi hamar, hogoi-eta-hamar urtheren eta garizumaren indulientcia cer erran nahi den. Lehembicico giristinoec ehun edo hirur ehun egunez, edo zazpi, hamar, hogoi eta hamar urthez eta bertee haimbertee garizumaz, barurean eta asco penitencietan beren bekhatuen zorrentzat pagatcen zuten becibat, Eliza Ama sainduac bere aldetic ematen daucula Jesusen pairamenetan hartuz, guc condicione galdeginac bethecten ditugularic.

§ 7. Ez gare harrituco Elizac hoimbertee indulientcia emateaz, orhoitcen bagare egun guciez ehun eta hogoi milla presuna bederen hiltcen direla; oren laurden bacotchean ehunca dohacila Purgatoriorat, batzuec hainitz dembora lucearentzat. Bertzalde guhauen egun gucietaco bekhatuac cembat ez dire; eta beraz badugu cer egin bai gure bekhatuen, bai Purgatoriotan direnen zorren alderat. Irabaz ahal becibat *indulientcia* edo *barcamena*.

§ 8. Aldare pribilejatuari esker, aphecec fagore hortaz gozatcen diren aldi guciez, irabazten dute indulientcia *oso* bat zoin hilaren arimarentzat eman baitute meza saindua eta arima harrentzat; eta hori mezaco sacrificioari

eratchikiac diren bertce ontasun neurri gabe-
coez bertzalde.

**Bertce Debocionezco pratica batzuec Tercie-
reri errecomendatuac**

1. Khurutcearen bidea.

2. Arrosarioac, bereciki bortz hamarretacoa
eta zazpi dolorena. Arrosarioco Haurridegoan
bere icena ezararastea.

3. Carmeleco *escapulario* edo Abituaren gar-
raiatcea.

4. Ama Birjina bekhatuic gabe Contcebi-
tuaren *abitu ceru* colorearen garraiatcea eta
erratea nahi becin maiz sei *Gure Aita, Agur
Maria* eta *Gloria*. Abitu hori cembat den abe-
rastua Aita Sainduetz, cembat indulientcia ira-
baz ditezken othoitz horiec erraten diren *aldi
guciez*, handi da. Abitu hori duenac othoitz
egiten du bekhatuen nombrea eta desordrea
ttipi ditecen bere baitan, bere etchean, hauzo-
etan, herrian...

5. Cembeit othoitz labor eta aberax.

— Fedezco, Esperantzazco eta Caritatezco
actac erraten diren *aldi guciez*, 7 urtheren eta
7 Garizumaren indulientcia : bertzalde hirur
berthute printcipal horiec emendatuco dire
gure baitan, aldi bacotchean.

— Maitatua bedi non nahi Jesusen Bihotz Sacratua. 100 Eg. indulientcia.

— Jesus, Bihotzez ezti eta umila, egizu ene bihotza zurea bezalacoa. 300 Eg. indulientcia.

— Jesusen Bihotz ezti, izan zaite ene amodioa. 300 Eg. indulientcia.

— Ene Jesus misericordia. 100 Eg. indul.

— Mariaren Bihotz ezti, izan zaite ene salbamendua. 300 Eg. indul.

— Jesus, Maria, Josepe, emaiten dautzuef ene bihotza, ene adimendua eta ene bicia.

— Jesus, Maria, Josepe, lagun nazazue ene azken agonian.

— Jesus, Maria, Josepe, hil nadila eztiki zuen compainia sainduan. 300 Eg. indul.



CEREMONIAC

I

Haurridegoaren Biltzarreac

*Ilhabeteco Biltzarre ordinarioan, erraten da :
Veni, sancte Spiritus... Sub tuum præsidium...
eta bertce cembeit othoitz latinez.*

*Biltzarre solanelean cantatcen da : Veni
Creator Spiritus...*

II

Arropa hartcea

*Sartu nahi dena belhaunico dago escuetan
dituelaric abitua eta corda.*

Galdea. Haurhidea, cer galdetcen
duzu?

Ihardestea. Ene Aita, humilki galde-
tceen dut Hirurgarren Ordenaco Peni-
tentciaren arropa, errechkiago salba
teeagatic.

Gidariac : Deo gratias.

*Gero exorta ttipi baten ondotic, benedicalcen
ditu Abitua eta Cordoia, eta bereala erraten da
edo cantatcen Veni Creator.*

Hymnoa acabatcearekin Gidariac sartcen de-

nari ematen diozca *Abitua, Corda, eta tortcha* bat. Azkenean erraten da edo cantatcen *Laudate Dominum* : eta cembeit othoitzen ondotic *Aphezac benedicatcen* ditu biltzarrean diren guciac, 28garren plaman bezala.

III

Profesionea

Haurrideac bilduco dire biltzarre solanelerat.
— *Nobiza bere ordenaco arropan belhaunico dago. Aita Gidariac hasten du Veni Creator Spiritus...*

Gero Aita Gidariac jarriric erraten dio :
Ene Haurridea, cer galdetcen duzu?

Ihardesten du : Ene Aita, galdetcen dut profesione sainduaren egitea San Franxesen Hirugarren Ordenan, Jaincoaren hortan cerbitzatceco hil artio.

Aita Gidariac : Deo gratias.

Eta eginen du exorta ttipi bat compreniarazten duelaric profesione horrec ez duela hertchatcen botu baten pare, eta ez dagocala ere bekhatuzco obligacione herxiric.

Orduan Nobizac egiten du Profesionea hitz hautaz :

Nic, N, Jainco guciz botheretsuaren

aintcinean, Maria bekhatu-ric gabe contcebituaren, Aita San Franxesen eta saindu gucien ohoretan, hitz ematen dut bici naiceno begiratuco ditudala Jaincoaren manamenduac, bai eta Hirurgarren Ordenaco Erregela, Aita San Franxesec berac emana, Aita Saindu Nicolas Laurharrenac eta Leon Hamahirurgarrenac fincatu dutena; eta satisfatuco dudala Aita Bizitatzaillearen nahirat Erregela beraren contra egin dituzkedan huxentzat.

Aita Gidariac ihardexi duenean guciac chutitcen dire eta cantatcen da Te Deum. Gero Profesa berriari ematen zaio san Franxesec berac erran izan zuen benedicionea :

Benedicat tibi Dominus, et custodiat te. Ostendat Dominus faciem suam tibi, et misereatur tui. Convertat Dominus vultum suum ad te, et det tibi pacem. Dominus te benedicat †. Amen.

Gero gucieri benedicione hau : Benedictio Dei omnipotentis, Patris, et Filii †, et Spiritus sancti descendat super vos, et maneat semper. R̄. Amen.

Azkenean Profesa berriari escaintcen zaizco khurutceficaren oinac; musu ematen diote eracusteco Jesusen maitatcetic ez dela behin ere baratu nahi seculacotz baita contratu hori.

Gero berehala Profesionentzat den Errechistroman ezartcen da Profesione berri hau.

Hemen eman ditugu ceremoniacotz Haurri-dec egin behar dituztenac.

Aita Gidariac badituzke bertee jakin behar direnac bertee cembeit liburutan.

I. O. G. D.



